



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2003ko otsailaren 20a

14. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa. Osoko Bilkurak bazter utzitako osoko zuzenketa (2. or.).
- Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitateak “Club Atlético Osasunari” abal bat ematekoa. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).
- Foru Legea, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileendako eta haren montepioetako pensiodunendako ordainsarien arloko neurri batzuk ezartzen dituen. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).
- Foru Legea, Nekazaritza azpiegiturei buruzko martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legeari beste xedapen gehigarri bat eranstean diona. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Foru Legea, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileendako neurriei buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).
- Foru Legea, Nafarroako Hertz-protesigileen Elkargo Ofiziala sortzekoa. Osoko Bilkurak onetsia (10. or.).
- Foru Legea, tabako kontsumoaren prebentzioari, arnasteko airea babesteari eta tabakoaren aurrean osasuna sustatzeari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (11. or.).
- Foru Legea, turismoari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (22. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZITAKO OSOKO ZUZENKETA

Nafarroako Parlamentuak, 2003ko otsailaren 6an egindako Osoko Bilkuran, foru parlamentari Joxe Fernando Barrena Arza eta Félix Puyo Rebollo jaunek zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa baztertea erabaki zuen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 130.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, aipatu proiektua Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordera igortzen da.

Iruñean, 2003ko otsailaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitateak “Club Atlético Osasunari” abal bat ematekoa

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2003ko otsailaren 6an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Foru Komunitateak “Club Atlético Osasunari” abal bat emateko Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2003ko otsailaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitateak “Club Atlético Osasunari” abal bat ematekoa

ZIOEN AZALPENA

Espainiako Konstituzioak, I. Tituluko Hirugarren Kapituluko 43. artikuluko 3. idatz-zatian aipatzen diren politika sozial eta ekonomikoko printzipio zuzentzaileen artean, honakoa adierazten du: “botere publikoek osasunerako hezkuntza, gorputz hezkuntza eta kirola bultzatuko dute. Hala-ber, aisialdia zuzentasunez erabiltzeko erraztasunak emanen dituzte”.

Nafarroako Foru Komunitateak erabateko eskumena du kirola sustatu eta aisialdia zuzentasunez erabiltzeko, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 44. artikuluko 14. idatz-zatiaren arabera. Eskumen hori Nafarroako Kirolari buruzko uztailaren 5eko 15/2001 Foru Legea onestean erabili zuen.

Ezin ukatuzkoa da kirola, bere agerpen guztietan, eta bereziki ikuskizuna den aldetik, jendetza handiendako gertaera bat dela; eta, gizarteko ekitaldien artetik, jendea mugiarazi eta erakartzeko ahalmenik handienetarikoa du.

Kirolen barruan nabarmena da “Club Atlético Osasunaren” jarduera. Talde honek erro sendoak ditu Nafarroako Foru Komunitatean. Kirola bultzatzen du, bereziki gazteen artean, eta horrekin batera, ikuskizuna den aldetik, hemengo zerbitzuen sektorearendako dirusarrera handiak sortzen ditu.

Hori dela eta, futbol-elkarte haren egoera finantzarioaren zaila ikusirik, Nafarroako Gobernuak komenigarritzat jo du gizarte eta ekonomia-

rendako onura hura babestu eta piztea. Horretarako proposatu du Osasunari Nafarroako Foru Komunitatearen abal bat ematea, klub hark sinaturiko kredituak bermatzeko.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeak xedatzen duenez, legeetan aurreikusiriko kasuetan, Foru Komunitateak pertsona fisiko edo juridikoek, publikoek edo pribatuek Espainian zein atzerrian hitzartzen dituzten kredituen ondoriozko obligazioak bermatzen ahal ditu, behar den abala emanaz. 81. artikulua xedatzen duenez, abalen guztizko zenbatekoak ezin gaudituko du Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko Foru Legeak aurrekontualdi bakoitzerako ezartzen duen muga eta, Nafarroako Gorteek espresuki baimentzen dutenean izan ezik, pertsona fisiko edo juridiko bat ere ezin izanen da foru lege hartan baimenduriko mugaren ehuneko 5etik goiti egiten duten abalen onuradun.

Kasu honetan, "Club Atlético Osasunaren" jarraiera Nafarroako Foru Komunitatearendako interesgarritzat jotzen denez, bidezko da abala foru lege honetako artikuluetan adierazten diren baldintzetan ematea.

1. artikulua. "Club Atlético Osasunari", G31080179 IFZ duenari, Nafarroako Foru Komunitatearen abal bat ematen zaio, gehienez ere 18.030.363,13 eurokoa. Abal horren xedea da futbol-elkarte horrek dituen zorrak berfinantzatu edo ordaintzeko kreditu- edo mailegu-eragiketak bermatzea. Zor horien kontzeptuak 2002ko ekainaren 30eko egoera-balantze auditatua eta auditoretzak 2002ko uztailaren 23an eman txostenean aipatzen dira. Bakoitzaren zenbatekoak foru lege hau betetzean zehaztuko dira. Hortik kanpo gelditzen dira dieta, ordezkartzaren gastu eta kiroletik kanpoko gastuengatik sorturiko zorrak.

2. artikulua. 1. Baimenduriko abalak entitate hartzekodunari bermatuko dio entitate zordunak hitzarturiko kreditu edo maileguen unean uneko zorraren saldo osoa itzuli beharra beteko dela.

2. Muga egunean edozein zenbateko ordaindu gabe badago, hartzekodunak esku izanen du obligazio osoaren muga eguna eta bermatzaileari hura betetzea eskatzeko eguna aurreratzea premitatzeko, adieraziriko gehieneko mugarekin.

3. Nafarroako Foru Komunitateak solidarioki abalatuko ditu "Club Atlético Osasunak" harturiko obligazioak, bermaturiko kreditu edo maileguen ondorioz, eta Nafarroako Foru Berriko 525. Legean aipatzen den eskusio-eskubideari uko eginez.

3. artikulua. Fidantzak gehienez ere hamaazpi urteko epea izanen du, ezaldia barne, kasu bada. Entitate abalatuak harturiko dirua entitate hartzekodunari osorik itzultzean bukatuko dira epe horretako ondorio guztiak.

4. artikulua. Entitate abalatuak aski den bermea ezarri beharko du Nafarroako Foru Komunitatearen alde, zuzenbideak onartzen duen edozein baliabide erabilirik, kostuak eta gastuak barne. Gaur egun aski izan ez baledi, geroko ondasunekin aurre egingen lioke bermaturiko obligazioari.

5. artikulua. Baimentzen den abalaren xede diren kreditu edo maileguak 2003ko aurrekontualdiaren barruan formalizatu beharko dira.

6. artikulua. Entitate abalatuak, hitzartzen duen kreditu edo maileguaren bidez, lehenengo eta behin, Nafarroako edozein administrazio publikorekin dituen zorrak kitatu beharko ditu.

7. artikulua. 1. Ekonomia eta Ogasun Departamentuak mailegua ematen duen kreditu entitateari argibide zehatzak eskatzen ahalko dizkio mailegua hartzen duen entitateak Nafarroako Foru Komunitateak abalaturiko kreditu edo maileguaren ondoriozko betebeharrak betetzeari buruz.

2. Entitate hartzekoduna espresuki beharturik dago modu fede-emailean jakinaraztera kreditua hartu duen entitateak pagatu ez izana, 30 egun naturaleko epean, kreditu edo mailegu kontratuan kapital eta korritu hitzartuak amortizatzeko kuota bakoitza pagatzeko ezarritako epea bukatu eta biharamunetik hasita zenbatuta. Betebehar hau bete ezik, Nafarroako Gobernua betebehar guztietatik salbuetsiko da jakinarazteke dagoen zor kitatugabearen zenbatekoari dagokionez.

8. artikulua. Entitate abalatuak erraztasunak emanen dizkio Ekonomia eta Ogasun Departamentuari ikuskatu eta kontrolatzeko. Departamentuak egiaztatu beharko ditu abalaturiko kreditu edo maileguko kontratuaren bidez finantzaturiko eragiketak egin egin direla eta errenta direla, baita entitate abalatuak kaudimena duela ere. Horretarako, bidezkotzat jotzen dituen agiriak begiratzen ahalko ditu.

Helburu horrekin, entitate hark, hiru hilabetean behin, alde zurretik ordainketen egutegi bat igorriko du, eta aipaturiko departamentuak auditatu beharko du eta harekiko adostasuna adierazi.

9. artikulua. Diruzaintzako abala baimendu eta formalizatzeko gastu eta zerga guztiak entitate abalatuaren ez besteren kontu izanen dira.

10. artikulua. Ematen den abalak ez du inolako komisiorik sortuko Nafarroako Foru Komunitatearen alde.

11. artikulua. Kreditu kontratuko klausulek Nafarroako Foru Komunitateari foru lege honen bidez baimendurik ez dauden eginbeharrak ezartzen badizkiote, emaniko abala bertan behera utziko da.

12. artikulua. Nafarroako aurrekontu orokorre buruzko abenduaren 29ko 19/2000 Foru Legeko 16. artikuluan ezarritako muga 12.020.242,09 eurotik (2.000 milioi pezetatik) 30.050.605,22 euro arte (5.000 milioi pezeta arte) handitzen da.

13. artikulua. Abala otsailaren 16ko 49/1989 Foru Dekretuan xedaturikoarekin bat formalizatu da. Foru Dekretu horren bidez Nafarroako Foru Komunitatearen abalak emateko prozedura arautu zen.

Azken xedapenetan lehenbizikoa. Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege hau betearazteko behar diren xedapen eta ebazpen guztiak eman ditzan.

Azken xedapenetan bigarrena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Legea, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileendako eta haren montepioetako pentsiodunendako ordainsarien arloko neurri batzuk ezartzen dituen

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2003ko otsailaren 6an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileendako eta haren montepioetako pentsiodunendako ordainsarien arloko neurri batzuk ezartzen dituen Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2003ko otsailaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Legea, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileendako eta haren montepioetako pentsiodunendako ordainsarien arloko neurri batzuk ezartzen dituen

ZIOEN AZALPENA

2002ko apirilaren 15ean izenpetu zen "Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta sindikatuen arteko Ituna, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen 2002. eta 2003. urteetarako lan baldintzei buruzkoa".

Itun horretako 2. puntuak hauxe dio:

"– Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen lansariak, urtero, Estatu osorako aurreikusiriko KPI adina gehituko dira, Itunak

indarrean diraeino. 2002rako gehitze hori 100eko 2koa izan da.

– Urte bakoitzean Nafarroan gertatzen den benetako KPI Estatu osorako aurreikusirikoa baino handiagoa izanez gero, eros-ahalmenari eutsiko zaio. Kasu horretan, alde hori zuzenean lansariei gaineratuko zaie. Finkatu egingen da eta hurrengo urteko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorio ekonomikoak.

– Halaber, hurrengo urteko urtarril edo otsaileko nominan, sari bakar bat pagatuko da, ezin finkatuko dena, aurreko urtean guztira sorturiko lansarien arabera kalkulatu. Nafarroako benetako KPIk zenbat gaintitzen duen aurreikusiriko KPI, horrenbestekoa izanen da sari hura."

Klasula hauek betearazteko legezko arautegi bat eman behar da, bai haien edukiagatik, bai burutuko badira behar duten finantzaketagatik, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuko 39. artikuluko 4. idatz-zatian eta 83. artikuluko 6. idatz-zatiko b) letran xedaturikoa betez. Idatz-zati horietan xedatzen da administrazio publikoetako funtzionarioen lansarien igoerak urte bakoitzeko Nafarroako aurrekontu orokorre buruzko Foru Legean agertu behar duela.

2003ko ekitaldian, 2001eko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorre buruzko abenduaren

29ko 19/2000 Foru Legea bigarrenkoz luzatu denez eta bertan espresuki 2002ko urtarrilaren 1az geroztik KPI espero zena baino gehiago handitzeagatik langileeen lansariak gaurkotzeko aipamenik ez dagoenez, bidezko da legezko araudia ematea, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak eta sindikatuek 2002ko apirilaren 15ean izenpeturiko Ituneko klausula bete ahal izateko.

Horregatik beharrezkoa da foru lege hau onartzea.

1. artikulua. Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko funtzionarioen eta estatutupeko langileen lansarien igoera orokorra.

1. 2003ko urtarrilaren 1az geroztik, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko funtzionarioen eta estatutupeko langileen lansariak 100eko 2 handituko dira, langile haien 2002rako lansariei 100eko 1,9607843 gaineraturik.

2. Aurreko puntuan xedaturikoa betez, 2003rako, E mailako hasierako lansaria 11.547,76 eurokoa izanen da.

3. Foru lege honek indarra hartu eta hurrengo hilabeteko nominan, 100eko 1,9607843ko sari bakar bat pagatuko da, ezin finkatuko dena, langileek 2002an guztira sorturiko lansariei aplikaturik.

4. 2003an Nafarroako benetako KPI artikulua honetako 1. idatz-zatian ezarritako 100eko 2ko igoera baino handiagoa bada, aldea zuzenean aplikatuko zaie 2003ko lansariei. Zenbateko hori finkatu egingen da eta 2004ko urtarrilaren 1az geroztik izanen ditu ondorioak. Halaber, aurreko urtean guztira sorturiko lansarien arabera kalkulaturiko sari bakar bat pagatuko da, finkatuko ez dena, desbideratze horren ehunekoa adinakoa.

2. artikulua. Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko lan-kontratudunen lansariak.

1. 2003ko urtarrilaren 1etik aitzina, Nafarroako Foru Komunitateko administrazio eta haren erakunde autonomoetako lan-kontratudunen lansariak haien hitzarmen kolektiboan zehazten direnak izanen dira, betiere foru lege honetako 1. artikuluan ezarritako irizpideei jarraikiz.

2. Nafarroako gainerako Administrazio Publikoetako lan-kontratudunen lansariak, administrazio publiko bakoitzak bere aurrekontuetan ezartzen dituenak izanen dira, betiere foru lege honetako 1. artikuluan ezarritako irizpideei jarraikiz.

3. artikulua. Nafarroako Gobernuo kideak eta izendapen libreko behin-behineko langileak.

2003ko ekitaldirako, Nafarroako Gobernuo kideen eta izendapen libreko behin-behineko langileen lansariak foru lege honetako 1. artikuluan ezarritako ehuneko eta irizpideen arabera gehituko dira.

4. artikulua. Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko montepioetan babesturiko funtzionarioen eskubide pasiboak.

1. Foru lege honetako 1. artikuluan xedaturikoa Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko montepioetako pentsioei ere dagokie. Gaurkotzeko eskubidea izanen dute, baita montepio horietan babesturiko funtzionarioen eskubide pasiboetan eragina duten lansari-kontzeptuen zenbatekoa zehazteko ere.

2. Aurreko idatz-zatian xedaturikoa betez, eskubide pasiboetan eragina duten lansari-kontzeptuen zenbatekoak hauexek izanen dira 2003. urterako:

MAILA	LANSARIA	GARESTITZEA
1	10.321,70	7.622,76
2	8.491,13	7.231,76
3	7.558,95	7.032,95
4	7.184,51	6.953,27
5	6.868,78	6.886,01
6	6.577,88	6.823,75
7	6.302,20	6.921,24
8	6.110,02	7.136,99
9	5.831,82	7.077,51
10	5.668,03	6.912,96
11	5.520,60	6.826,74
12	5.203,91	6.639,76
13	4.987,97	6.533,91
14	4.594,01	6.332,88
15	4.231,22	6.042,94
16	4.009,99	5.912,65
17	3.644,32	5.782,63

- Sendagileak, botikariak eta albaitariak:
Lansaria: 6.449,17
Fakultatiboaren lanpostuagatik: 4.214,67
- Osasun laguntzaile teknikoak:
Lansaria: 3.727,37
Fakultatiboaren lanpostuagatik: 3.372,00
- Emaginak:
Lansaria: 1.378,39

5. artikulua.- 1. Kreditu gehikuntza bat ematen da, 26.696.000 eurokoa, 2003rako luzaturiko 2002ko aurrekontuan "Langileekiko Hitzarmen indarduna aplikatzeko fondo" izeneko 020000-04000-1620-122600 kontusailari, zeina handitu ahalko baita, aplikatuko zaiona, foru lege honetan xedaturikoa betetzeko.

2. Kreditu gehikuntza hori 2003rako luzaturiko 2002ko aurrekontutik finantzatu da, "Aurreko

ekitaldietako superabitaren aplikazioa" izeneko 112000-11400-8700-000000 kontusailetik.

Azken xedapenetan lehenbizikoa. Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio foru lege hau garatu eta betearazteko behar diren erregelamendu-arau guztiak eman ditzan.

Azken xedapenetan bigarrena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean hartuko du indarra.

Foru Legea, Nekazaritza azpiegiturei buruzko martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legeari beste xedapen gehigarri bat eransten diona

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2003ko otsailaren 6an egindako Osoko Bilkuran, Nekazaritza azpiegiturei buruzko martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legeari beste xedapen gehigarri bat eransten dion Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2003ko otsailaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Legea, Nekazaritza azpiegiturei buruzko martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legeari beste xedapen gehigarri bat eransten diona

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Parlamentuak, martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legearen bidez, Nekazaritza azpiegiturei buruzko Foru Legea onetsi zuen, besteak beste, lurzatiak berrantolatzeko ohiko prozedura eta prozedura laburra arautzen dituena.

Arlo horri buruzko ordura arteko arautegiak honako hauek biltzen zituen: lehenbizi, Nekazaritza berri eta garatzeko legearen testua onesten zuen urtarrilaren 12ko 118/1973 Dekretua eta gero Nekazaritzako azpiegituren berrikuntzari buruzko abenduaren 9ko 18/1994 Foru Legea. Arautegi hartan lurzati prozeduretan gertaturiko eskubide eskualdaketei edo bestelako aldaketei buruz arau bat bazegoen, baina oraingo arautegian aipatzen ez da ezer aipatzen.

Eragingarritasuna eta segurtasun juridikoa direla-eta, komeni da eskualdaketak eta aldake-

tak egiteko epe bat ezartzea, prozeduraren bukararekin bat datorrena. Bukaera hori, lurzati berrantolamenduetan, jabetzaren antolamendu berria daukan Erabakia irmo bihurtzen denean gertatzen da.

Bestetik, gaur egun berrantolamendu batzuk hasiak daude. Batzuetan 18/1994 Foru Legeak du indarra eta beste batzuetan 1973ko Legeak. Foru lege hark epe laburrago bat ezartzen zuen aldaketak egiteko, bakarrik erabakia argitaratu arte baimentzen baitzuten. Estatuko aurreko legeak, baina, ez zuen eperik ezartzen eta, beraz, ulertu behar zen erabakia irmo bihurtzean, lurzatiak berrantolatzeko prozedurarekin batera alegia, bukatzen zela.

Segurtasun juridikoko eta tratu administratibo bereko irizpideak direla-eta komeni da legerako proposaturiko aldaketa lurzatiak berrantolatzeko gaur egun izapidatzen ari diren prozedura guztietara zabaltzea. Haietarako guztietarako eperik zabalena ezarriko da, Erabakia irmo bihurtzen denekoa, alegia.

Lur-trukaketei dagokienez, lehen azaldu diren arrazoi berengatik, bidezko da arautegian aipatzen diren epe guztiak batzea. Horrela, izapidatzen ari diren berrantolamendu guztietan martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legeko 28. artikuluko 3. idatz-zatian xedaturikoa izanen da arau.

Artikulu bakarra.

1. Nekazaritza azpiegiturei buruzko martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legeko xedapen gehigarri bakarra lehenbiziko xedapen gehigarri bihurtzen da.

2. Nekazaritza azpiegiturei buruzko martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legeari beste xedapen gehigarri bat eransten zaio, bigarrena, testu hau izanen duena:

“Foru lege honek indarra hartzean lurzatiak berrantolatzeke izapidatzen ari diren prozedura guztietan, zer arautegik zuzentzen dituen kontuan hartu gabe, baita hastekoak diren prozeduretan ere, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak oinarriak argitaratzen direnetik erabakia irmo bihurtu bitarte jakinarazten diren eskubide eskualdaketei edo bestelako aldaketei

indar eman ahalko die, baldin eta behar bezala frogatzen badira.

Lur-trukaketetan, foru lege honetako 28. artikuluko 3. idatz-zatia izanen da arau”.

3. Foru lege horretako “XEDAPEN GEHIGARRIA” idazpurua “xedapen gehigarriak” bihurtzen da.

Azken xedapen bakarra. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Legea, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileendako neurriei buruzkoa

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2003ko otsailaren 6an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileendako neurriei buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2003ko otsailaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileendako neurriei buruzko Foru Legea

ZIOEN AZALPENEA

Abuztuaren 30eko 251/1983 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsirik Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bateginari ezarritako araubide juridikoak behartzen du funtzio publikoaren arloko zenbait xedapen foru lege mailako arauen bidez onestera.

Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen lan-baldintzei buruzko negoziazioak 2002ko apirilaren 15ean bukatu ziren. Egun horretan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen ordezkariak 2002 eta 2003. urteetarako Itun bat izenpetu zuten UGT, CCOO eta CEMSATSE sindikatuen ordezkariekin (azken horretakoekin, bakarrik lan-kontratupeko langileei zegokienez).

Itun horrek kontu batzuk biltzen ditu, arau bihurtu behar direnak. 20. idatz-zatiaren arabera, Administrazioak kasuan-kasuan behar duen maila emanen die arau horiei, formalki onetsi ondoren, indarra har dezaten.

Nafarroako Gobernuak 2002ko apirilaren 22ko bilkuran berretsi zuen 2002ko apirilaren 15eko Ituna, eta agindu zion Lehendakariak, Justizia eta Barne Departamentuari hura betearazteko behar diren neurri eta ekinbideak, legezkoak eta erregelamenduzkoak, har zitzala, haiek indar hartzeko kasuan-kasuan behar den organoak formalki onesteko.

Hori horrela, Itunak bi aurreikuspen biltzen ditu, Langileen Estatutuko aldaketa bana egitera behartzen dutenak. Bata funtzionarioek familiarendako laguntza hartu ahal izateko betebeharrei dagokie. Bestea, diziplina araubidean ezarritako hutsegite larrien zerrendari.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileei dagokienez, 2002 eta 2003. urteetarako Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen lan-baldintzei buruzko Itunak neurri batzuk sartu ditu, haien lansari-araubidea aldatzen dutenak. Lansari horiek erakunde autonomo horri atxikiriko langileen berariazko araubideari buruzko urriaren 20ko 11/1992 Foru Legean ageri dira. Horregatik beharrezkoa da lege hura Itun horretako aurreikuspenetara egokitzea.

Zehazki, neurri hauek hartu asmo dira: funtzionarioentzat ezarritako famili laguntza estatutupeko langileei ere ematea; lan-istripuaren edo lan-gai-

xotasunaren ondorioz aldi baterako ezgaiturik dauden langileei, lansari finkoak ez ezik, gauez, jaiegunetan eta guardietan eginiko txandakako lanagatik, ezgaitu baino lehenagoko hamabi hila-beteetan kobraturiko diruaren batezbestekoa pagatzea; eta A maila edo taldeko langileei gauez edo jaiegunetan eginiko txandakako lanaren ordaina pagatzea, baldin eta inguruabar horiek haien ohiko lanaldian gertatzen badira. Azkenik, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko karrera profesionaleko sisteman aurreikusiriko ebaluazio batzordeei eman asmo zaie langileak hautatzeko epaimahaietako kideendako ezarritako ordaina, bakar-bakarrik beren lanalditik kanpo badihardute.

Azkenik, sindikatuen ordezkariekin izenpeturiko ltunean beste bi kontu sartu dira. Bi kontu horiek, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuko artikulua ukitzen ez badituzte ere, eginen badira, legezko gaitasuna behar dute, hala nola: funtzionario bihurtzeko beste prozesu bati ekitea, bai Foru Komunitateko administrazioan eta haren erakunde autonomoetan, bai Nafarroako toki entitateetan, eta, aurrekontuetatik kanpo, lan-eskaintza publikoan foruzain lanpostuak sartzea.

I. KAPITULUA

Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsiriko Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bateginean sarturiko aldaketak

1. artikulua. 50. artikuluko 1. idatz-zatiko c) letra honelaxe geldituko da:

“c) Emantzipatu gabe dagoen seme-alaba adingabe bakoitzagatik %3,00.”

2. artikulua. 63. artikuluari m) letra erantsiko zaio; hauxe:

“m) Sexu-jazarpena.”

II. KAPITULUA

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikiriko langileen berariazko araubideari buruzko urriaren 20ko 11/1992 Foru Legean sarturiko aldaketak

3. artikulua. 10. artikuluko 5. idatz-zatia honelaxe geldituko da:

“5. 100eko 45eko edo hortik goitiko berariazko osagarria kobratzen duten langileek gauez edo jaiegunetan eginiko txandakako lanaren ordainak hartzen ahalko dituzte, baina bakarrik inguruabar horiek ohiko lanaldiaren barruan gertatzen direne-

an; espresuki gelditzen dira kanpo bertan edo lokalizaturik egin beharreko guardiak.

Langile horiek ez dute behin ere izanen aparteko orduengatik kobratzeko eskubiderik”.

4. artikulua. 13. artikuluko 2. idatz-zatiari beste lerrokada bat erantsiko zaio. Testu hau izanen du:

“Txandakako lanik egiten ez duten langileei ordutegi horretan eginiko ordu bakoitzerako ezarritako ordaina pagatuko zaie, ohiko lanaldia egiten duten langileei izan ezik, horiek ez baitute behin ere ordain hori kobratuko”.

5. artikulua. 20. artikulua testu hau izanen du:

“20. artikulua. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikiriko funtzionarioek eta estatu-tupeko langileek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuko funtzionarioentzat orokorki ezarritako famili laguntza kobratuko dute, haiendako ezarritako baldintzetan”.

6. artikulua. 23. artikuluari beste lerrokada bat erantsiko zaio. Testu hau izanen du:

“Karrera profesionaleko sisteman aurreikusiriko ebaluazio batzordeak osatzen dituzten langileek kobratuko dute langileak hautatzeko epaimahaietako kideendako aurreikusiriko ordaina, baldin eta beren ohiko lanalditik kanpo badihardute”.

7. artikulua. Beste xedapen gehigarri bat eransten da. Testu hau izanen du:

“Seigarrena.- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileek, aldi baterako ezgaiturik badaude lan-istripu edo lan-gaixotasunaren ondorioz, aldian aldikoak ez diren lansariak ere kobratuko dituzte; hots, gauez lan egiteagatik, jaiegunetan lan egiteagatik eta/edo, hala bada, aldi baterako ezgaitasun egoerara pasatzean zeukaten lanpostuan egin beharreko guardialdiengatik kobratuko zituztenak. Horretarako, gaineratu beharreko kopurua izanen da aldi baterako ezgaitu baino lehenagoko hamabi hilabeteetan kontzeptu horiengatik izan zituzten lansari guztien batez bestekoa.

Baldin eta, edozein gorabehera dela eta, langileak aldi baterako ezgaitasun egoerara pasatzean zeukan lanpostuan aurreko hamabi hilabeteetan egiazki jardun ez badu, batez bestekoa kalkulatu da kontuan hartuz aurreko lerrokadan aipatzen diren lansari aldian aldikoak ez direnak, lanpostu hartan lanean egiazki eman dituen hilabeteetakoak”.

III. KAPITULUA

Langileendako beste neurri batzuk

8. artikulua. 1. Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari beste epe bat ireki dezan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko estatutupeko langileak eta lan-kontratupeko langile finkoak funtzionario bihurtzeko ahal daitezen, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutua aldatu eta Estatuko administrazioetik transferitu beharreko langileak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan sartzea arautzen duen ekainaren 27ko 5/1990 Foru Legearen lehenengo xedapen gehigarrian, 1992rako Nafarroako aurrekontu orokorreko buruzko ekainaren 23ko 9/1992 Foru Legeko hirugarren xedapen gehigarrian eta Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileendako neurriari buruzko abenduaren 30eko 15/1993 Foru Legeko 4. artikuluan ezarritako baldintza beretan, eta hori garatu eta betearazteko behar diren xedapenak eman ditzan.

2. Neurri hauek garatzeko erregelamenduzko xedapenetan zehaztuko da ukituriko langileek bi hilabeteko aukera-epea izanen dutela, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera.

9. artikulua. 1. Nafarroako toki entitateek beste prozesu bati ekiten ahalko diote beren zerbitzuko lan-kontratupeko langile finkoak funtziona-

rio bihurtzeko, erregelamendu bidez zehazten den prozedurarekin bat.

2. Erregelamenduzko garapen horretan zehaztuko da toki entitateek bi hilabeteko epea izanen dutela, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera, erabakitzeke beren zerbitzuko lan-kontratupeko langile finkoei funtzionario bihurtzen uzteko prozesuari ekinen diotenez. Prozesu horri ekitea erabakiz gero, ukituriko langileek epe bera izanen dute aukeratzeko.

10. artikulua. Nafarroako Gobernuak 2003. urterako lan-eskaintza publikoan gehienez ere 50 lanpostu sartuko ditu foruzain izateko, aurrekontuetatik kanpo.

Xedapen iragankor bakarra. Foru lege honetan lansariei buruz aipatzen diren neurriak, atzerako eraginaz, 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko dira.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Indargabetu egiten dira foru lege honetan xedaturikoaren aurkako maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Azken xedapenetan lehenbizikoa. Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio foru lege hau garatu eta betearazteko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Azken xedapenetan bigarrena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamuneari hartuko du indarra.

Foru Legea, Nafarroako Hortz-protiesigileen Elkargo Ofiziala sortzekoa

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2003ko otsailaren 6an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Hortz-protiesigileen Elkargo Ofiziala sortzeko Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2003ko otsailaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Nafarroako Hortz-protiesigileen Elkargo Ofiziala sortzeko Foru Legea

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Foru Legeko 44. artikuluko 26. idatz-zatiak adierazten du Nafarroak eskumen eksklusiboa duela lanbide elkargoen eta lanbide tituludunetako jardunaren arloetan, legeria orokorrekarekin bat.

Artikulu horretan xedaturikoaren arabera, eta Nafarroako Foru Komunitateak bere gain hartu dituen eskumenak ikusirik, Nafarroako lanbide elkargoei buruzko apirilaren 6ko 3/1998 Foru Legea eman zen. Foru lege horri erregelamenduzko garapena abenduaren 18ko 375/2000 Foru Dekretuaren bidez eman zitzaion, aipatu foru dekretuak Nafarroako lanbide elkargoei buruzko foru legea garatzen duen erregelamendua onetsi baitzuen. Hori horrela, eskaera bat aurkeztu da Nafarroako Hortz-protiesigileen Elkargoa sortzeko. Eskaera Foru Komunitatean aritzen diren eta titulu ofiziala duten profesionalik gehienek izenpetu dute. Izan ere, lanbide horretantxe jarduteko eskatu dute elkargoa sortzea, eta foru lege hau eskari horren izapidaketaren ondoriozkoa da.

Martxoaren 17ko 10/1986 Legeak, odontologia eta hortz-haginen osasunarekin ikustekoa duten beste lanbide batzuk arautzen baititu, 2.1 artikuluan hortz-protiesigileen lanbidea ezagutzen du, bigarren mailako lanbide heziketako tituludunei dagokiena, eta arlo honetara zabaltzen du jarduteko eremua: produktu, gai, teknika eta prozedura egokiak erabiliz hortz-protiesiak diseinatu, prestatu, taxutu, egin eta konpontzea, mediku estomato-logoen eta odontologoaren jarraibide eta aginduei jarraituz.

Bestetik, martxoaren 17ko 10/1986 Legea garatzeko uztailaren 15eko 1594/1994 Errege Dekretuak hortz-protiesigileen lanbidearen edukia zehaztu zuen, eginkizunei dagokienez. Lehenbiziko xedapen iragankorrean ezarri zuenez, prozedura bat ezarri beharra zegoen arau horrek indarra hartu aurretik lanbidean ari ziren hortz-protiesigileei lanean segitzeko baimena emateko. Prozedura hori eta lanbiderako baimena emateko irizpide nagusiak Lehendakaritza Ministerioaren 1997ko maiatzaren 14ko Aginduaren bidez finkatu ziren.

Ondotik, apirilaren 7ko 541/1995 Errege Dekretuak –Hezkuntza sistemaren antolamendu orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera emana– hortz-protiesietako goi mailako teknikari titulua ezarri zuen, lanbide heziketako.

Lehenago aipatu den arau eta lanbide autonomia kontuan hartuz, komenigarritzat eta beharrezkotzat jo da lanbide elkargo bat sortzea Nafarroako Foru Komunitateko hortz-protiesigileak bildu eta lanbide horren eta bazkideen lanbide-interes ordezkarari eta defendatzaile izanen dena, gizartearen interes orokorrekin bat, eta legeen arabera lanbide horretan jarduteko era antolatuko duena.

Horrenbestez, Nafarroako Hortz-protiesigileen Elkargo Ofiziala sortzeko interes publikoko arrazoiak daudela jotzen denez, foru lege honen bidez elkargo hori sortzen da.

1. artikulua. Izaera eta araubide juridikoa.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Hortz-protiesigileen Elkargo Ofiziala sortzen da, zuzenbide publikoko korporazio gisa. Nortasun juridiko propioa du, eta gaitasun osoa bere helburuak eta eginkizunak betetzeko.

2. Lanbide elkargoak nortasun juridikoa izanen du foru lege honek indarra hartzen duenetik eta jarduteko gaitasuna gobernu-organoak eratzen direnetik.

2. artikulua. Jarduteko eremua.

Nafarroako Hortz-protiesigileen Elkargo Ofizialaren jarduteko eremua Nafarroako Foru Komunitatea da.

3. artikulua. Elkargoko kide egiteko eskubi-dea.

Ondokoak egin daitezke Nafarroako Hortz-protésigileen Elkargo Ofizialeko kide:

1. Hortz-protésikoen arloko Lanbide Heziketa-ko Bigarren Mailako titulua dutenak, odontologoei eta hortz-haginen osasunarekin ikustekoa duten beste profesional batzuei buruzko martxoaren 17ko 10/1986 Legean xedatutakoari jarraikiz.

2. Hortz-protésietako goi mailako teknikari tituluak dutenak apirilaren 7ko 541/1995 Errege Dekretuaren arabera, zeina Hezkuntza sistemen antolamendu orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoari jarraikiz eman baitzen.

3. Lanbidean aritzeko baimena eman zaien pertsonak, uztailaren 15eko 1594/1994 Errege Dekretuak eta martxoaren 17ko 10/1986 Legea garatzen duen Lehendakaritza Ministerioaren 1997ko maiatzaren 14ko Aginduak ezarritako moduan.

4. artikulua. Lanbidean aritzea.

Nafarroako Foru Komunitatean hortz-protésigile lanetan aritzeko ezinbesteko betebeharrak da Nafarroako Hortz-protésigileen Elkargo Ofizialeko kidea izatea, salbu eta beste lurralde bateko Hortz-protésigileen Elkargoko kidea dela frogatzen bada.

5. artikulua. Arautegia.

Nafarroako Hortz-protésigileen Elkargo Ofizialari aplikatuko zaizkio lanbide elkargoei buruzko legedia, bere estatutuak eta, kasua bada, barne araubideko erregelamendua.

Xedapen iragankor bakarra. Eratzeko prozedura.

1. Nafarroako Hortz-protésigileen elkarteak, foru lege honek indarra hartu eta sei hilabeteko epean, Nafarroako Foru Komunitateko Hortz-protésigileen Elkargo ofizialaren behin-behineko estatutuak onetsi beharko ditu, honakoak arautzen dituztenak:

a) Elkargoko kide bihurtzeko betebeharrak. Kide izateak elkargoa eratzeko biltzarrean parte hartzeko ahalmena emanen du.

b) Elkargoa eratzeko biltzarrerako deialdia egiteko prozedura eta biltzar haren funtzionamendua. Deialdi hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

2. Hortz-protésigileen Elkargo Ofiziala eratzeko biltzarrak eginkizun hauek izanen ditu:

a) Elkargoaren behin betiko estatutuak onestea.

b) Elkargoko gobernu-organotako kideak hautatzea.

3. Elkargoaren behin betiko estatutuak, onetsi ondoren, elkargoa eratzeko biltzarraren aktaren ziurtagiriarekin batera, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentura igorriko dira. Kontseilariak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agindua emanen du, Departamentuko organo eskudunak haiek legeekin bat datozela adierazi ondoren.

Azken xedapen bakarra. Indarrean sartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Legea, tabako kontsumoaren prebentzioari, arnasteko airea babesteari eta tabakoaren aurrean osasuna sustatzeari buruzkoa

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2003ko otsailaren 6an egindako Osoko Bilkuran, tabako kontsumoaren prebentzioari, arnasteko airea babesteari eta tabakoaren aurrean osasuna sustatzeari buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2003ko otsailaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Legea, tabako kontsumoaren prebentzioari, arnasteko airea babes-teari eta tabakoaren aurrean osasuna sustatzeari buruzkoa

ZIOEN AZALPENA

I

Gaur egungo gizarteetan tabakozaletasuna osasun publikoan eragilerik nabarmenatariko bat da. Gainera, gaizkitze eta hiltze tasetan aurrea har dakiekeen artetik zergatikorik garrantzitsua da. Horrez gain, badu berezitasun bat, menpekotasuna sortzen duela hain zuzen ere, eta haren sendakuntzak adikzioa eragiten duten beste gai batzuetarako erabiltzen denaren antzeko ekintza behar du.

Oso zabaldua denez eta eragin handia duenez, gizartean, osasunean eta ekonomian kostu handia sortzen du eta beharrezkoa ez den sufrimendua ere bai. Osasuna lehen mailako balio bat da. Herritarrek halaxe deritzote, banaka eta taldeka, botere publikoen bidez. Horregatik guztion eginkizuna da osasuna babestu eta sustatzeko neurriak hartzea.

Gaur egun murriztapenak badaude ere, tabakoaren salmenta, publizitatea eta zabalkundea dela-eta, gazteengana ailegatzen da. Nerabeen artean, zigarreta eskaria gero eta handiagoa denez, baldintza batzuk ezarri behar dira tabakoa kontsumitzearen ohitura gure herritarrik ahulenen artean zabal ez dadin.

Bestalde, zientzia-datu batzuk daude tabakoaren kea dela-eta ingurunearen kutsaduraren ondorioz erretzen ez dutenendako dauden arriskuei buruz. Horregatik bidezko da neurriak hartzea herritar haien osasuna babesteko eskubidea gordetzearren, beren eguneroko bizitza egin ahal izan dezaten onartzen ez duten arriskurik eta bereizkeriarik gabe.

Gatazka sortzen den bakoitzean erretzen ez dutenek osasunerako duten eskubideak betiere lehentasuna izanen du erretzaileek tabako-produktuak kontsumitzeko duten eskubidearen gainetik, erretzen ez dutenen osasunerako eskubidea urratzen ahal deneko toki edo inguruabar guztietan. Adingabeen babesa bidezkoa ez ezik beharrezkoa ere bada, legeek eta etikak agindurik. Osasun zerbitzuek tabakozaletasunaren sendakuntza aztertu behar dute beste edozein osasun arazo bezala. Argibideek eta hezkuntzak bat etorri behar dute gai honen gaineko ikerketekin. Horiek denak arrazoiak dira hurrengo kapituluetan garatzen diren neurriak hartzeko.

Gainera, gaur egun indarra duten lege-xedapenek hutsune garrantzitsuak dituztenez, Europako Batasunak tabakoaren arloko zuzentarau guztiak "litekeen osasunik hobereena" lortzeko bideratzen ditu. Helburu horixe du hemen aurkeztu den foru legeak. Beraz, foru lege positibo bat da, eskubiderik murrizten ez duena, osasuna babestu eta sustatzen duena baizik. Are bidezkoago da gainera Nafarroako Parlamentuak 2001eko apirilaren 27an Tabakoari buruzko Ekin-tzetarako Foru Plana onetsi zuenez geroztik. Haren ondorioa da gaurko legea.

II

Espainiako Konstituzioko 43. artikulua osasuna babesteko eskubidea aitortzen du eta xedatzen botere publikoei dagokiela osasun publikoa antolatu eta zaintzea prebentzio neurrien bidez, osasun arloko hezkuntza sustatuz.

Osasunari buruzko 14/1986 Lege orokorreko 25. artikuluko 2. idatz-zatiak xedatzen duenez, osasunari arriskua edo kaltea dakarkioten ondatsunen erabilera eta trafikorako debekuak eta gutxieneko baldintzak ezarri behar dira. Artikulu haren eta Erosle eta Erabiltzaileen babeserako uztailaren 19ko 26/1984 Lege orokorreko 3. artikuluko 2. idatz-zatiaren babespean, martxoaren 4ko 192/1988 Errege Dekretua eman zen, tabakoa saldu eta erabiltzeko murriztapenei buruzkoa, herritarren osasuna babesteko. Errege Dekretu horrek, 1. artikuluan, adierazten du tabakoa pertsonen osasunerako kaltegarria dela eta beraz erretzen ez dutenen osasunerako eskubideak betiere lehentasuna izanen duela erretzaileek tabako-produktuak kontsumitzeko duten eskubidearen gainean, haien osasunerako eskubidea urratzen ahal deneko toki edo inguruabar guztietan.

Urte berean, Publizitateari buruzko azaroaren 11ko 34/1988 Lege orokorrak, berariaz tabakoaz ari dela, telebistaren bidezko publizitatea debekatu du, eta tabakoa saldu edo kontsumitzea debeku den tokietan ere bai. Halaber, xedatzen du erregelamenduen bidez murriztapenak ezarriko direla, pertsonen osasuna eta segurtasuna babesteko.

Xedapen horien arabera, eragozpenak eta murrizketak ezarri dira. Kasu batzuetan, Europako Batasuneko zuzentarau batzuk, hala nola, 89/552/EEE Zuzentaraua, Espainiako legeriara egokitzeko. Berriki 98/43/EE Zuzentaraua saio bat izan da tabakoaren publizitatearen eta babes komertzialaren murriztapenen arloan arautegi bateratu bat egiteko. Ekimen honek huts egin du, Europako Auzitegiak baliogabetu baitzuen,

2000ko urriaren 5eko epaiaren bidez. Hala ere, haren ondorioz, gaur egun beste zuzentarau bat prestatzen ari da arlo honetaz, epai hartan eginiko gogoeta eta ñabardurak bilduko dituena.

Nafarroako Foru Komunitateari dagokionez, arau hau ematen da Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoko 44. artikuluko 18 eta 25. idatz-zatiek, 53. artikuluko 1. idatz-zatiak eta 56. artikuluko 1.d) idatz-zatiak Nafarroako Foru Komunitateari ematen dizkieten eskumenen arabera.

Eskumen horiek denek, d) idatz-zatian aipatzen denak izan ezik, legegintzarako ahalmena ere biltzen dute.

III

Osasun kontseilariak, urriaren 11ko 259/1999 Foru Aginduaren bidez, Tabakoari buruzko Foru Plan bat prestatzeko Aditu Batzordea sortu zuen. Haren kideek esparru eta diziplina askotako langileen talde bat osatu zuten. Haren egiteko nagusia izanen zen Nafarroa osorako Tabakoari buruzko Foru Plana prestatzea, botere publikoek egin ditzaketen ekintza guztiak biltzen dituen, Nafarroako eragile guztiak parte hartuta.

Egitekoa eginez, Batzordeko kide guztiak ados zeudela, Tabakoari buruzko Ekintzetarako Foru Plan bat osatu eta onetsi zen, 2000ko maiatzaren 15ean Nafarroako Gobernura igorri zena, hasiera batez onetsi zena. Haren helburua zen epe bat irekitzea Osasun Departamentuak Foru Komunitateko Administrazio Departamentuen eta Komunitatean ukituriko erakunde eta entitateen artean zabaltzeko, egokitzen jotzen zituzten ohar eta iradokizunak egin zituzten. Zabaldu ondoren, aurkezturiko alegazioak aztertutik, beste Plan bat prestatu zen, Nafarroako Gobernuak urte bereko irailaren 18an onetsi zuena. Gobernuak erabaki zuen Nafarroako Parlamentura igortzea, bertan onetsi zedin.

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak 2001eko apirilaren 27ko bilkuran Plana aztertutik, onetsi egin zen, proposamen gutxi batzuk bildurik.

Plan horretako aurreikuspenak gauzatu eta abian jartzeko, maiatzaren 28ko 127/2001 Foru Dekretuaren bidez, Tabakoari buruzko Ekintzetarako Foru Plana zuzendu eta koordinatzeko organoak sortu ziren. Horrela Plana burutzeko neurriak hartzen ahalko ziren.

Tabakoari buruzko Ekintzetarako Foru Planen tabakozaletasunaren arazoak, Nafarroako egoera eta erantzunak aztertzen dira, baita 2000-

2005 urteetarako egitekoen plan bat ere. Egitekoen plan horretan orotariko kontuak ageri dira, hala nola, helburuak, egitekoen irizpideak, jokabideko neurriak, baliabideak, argibide eta ebaluazio sistematik eta onesteko prozesuko egutegia. Horrekin batera berariazko programa batzuk zehazten dira, adibidez, erretzen hastea eragozte, erretzeari uzten laguntzea eta kerik gabeko guneak sortzea, Planeko hiru ardatz nagusiak baitira.

Laburbildurik, Planaren ondorioz, denetariko neurri eta ekintzak asmatu dira, osasun arazo bat batera aztertzeko, oso ñabardura ezberdinak baititu, gizarte, kultura eta ingurune inguruabarren arabera. Haien arabera ez da erretzaileen kontra jo nahi, erretzaileak gehitzen dituzten kontuen kontra baizik. Abiapuntu batzuk ezarri nahi dira erretzaileen eta kearen ondorioak paraitzen dituzten ez-erretzaileen elkarrenganako begirunean oinarrituriko bizikidetzak lortzeko.

Ekintza horiek denak oso modu ezberdinetan burutuko dira, baina nabarmena da beharrezkoa dela foru lege bat ematea ekintza guztiak bildu eta ukituriko erakunde guztiak koordinaturik ekiteko abiaburutako eta ekitaldi publikoen adostasunezko oinarritako balio duena.

IV

Foru lege honek Atariko Titulu bat eta hiru Titulu dauzka. Hona hemen hauen izenburuak: I. Aurreneurriak eta osasuna sustatzeko ekintzak, II. Babesteko ekintzak eta III. Zehapen araubidea.

Bereizketa horren funtsa da batetik osasuna sustatzeko ekitaldiak eta babestekoak nabarmentzea, foru lege honetako 2. artikuluko definizio doktrinalen arabera.

Atariko Tituluak orotariko xedapen batzuk biltzen ditu, hala nola, foru legearen xedea, irizpide zuzentzaileak eta foru lege osoko ardatzak osatzen dituzten definizioak. Irizpide zuzentzaileen artean aipatzekoa da tabakoa kontsumitzea osasun arazotzat hartzen dela, tabakoa kontsumitzeari edo haren balizko ondorioei aurrea hartzeko ekitaldiek lehentasuna izan behar dutela eta gizartearen adostasuna erdietsi behar dela neurri babesleak hartzeko, gehienbat atez barrukoak.

I. Tituluak gaixotasunei aurrea hartu eta osasuna sustatzeko ekitaldiak biltzen ditu, alegia, tabakoa kontsumitzera bultzatzen duten gizabanakoen, gizartearen eta kulturaren ohiturak aldatzeko jokabide eta jarduketaren multzo dinamikoa. Beste neurri batzuk argibideak, osasunerako hezkuntza eta osasuna hobetzeko ekitaldiak sustatu eta piztea dira. Haren lau kapituluetan barrena, orotariko helburu batzuk aipatzen dira (I. Kapitu-

lua) programak eta jarduketak bultzatu, garatu, sustatu, koordinatu, kontrolatu eta ebaluatzeak. Osasuna sustatzeko ekitaldiak ere biltzen dira (II. Kapituluak), alegia, osasunerako argibide, sustapen eta hezkuntza eta ikerketa. III. Kapituluak osasun laguntza ukitzen du, alegia, tabako menpekotasuna sendatzeko ekitaldiak. IV. Kapituluak Administrazio Publikoen eskumenak aztertzen dira. Udalei eginkizun berezia ematen zaie euren mugapean, eta Nafarroa osorako plangintza eta jarduketa berariazkoak Nafarroako Gobernuaren eta Osasun Departamentuaren esku uzten dira. Atal honetan Tabakoari buruzko Ekintzetarako Foru Planeko aldi guztiei ekiteko egitura aurreikusten da, eta foru lege honetako jarduketak egiteko finantzaketa ere bai.

II. Tituluak babesteko jarduketak ukitzen ditu, hots, neurri eta jarduketa murriztaile guztiak. Haien xedea da pertsonen osasunerako eskubidea aldeztzea eta herritarrek tabakoaren publizitatea, zabalkunde eta babesaren aurka defenditzea. Bere edukiagatik, I. kapituluak tabakoaren merkataritza komunikazioaren eta babesleztaren murriztapenei buruzkoa da, II. kapituluak tabakoa saltzeari dagokio, eta III. kapituluak arnasteko airea tabako kearen kutsaduratik babesteko araubidea ezartzen da.

Azkenik, III. Tituluak zehapen araubidea biltzen du. Arau-hausteen sailkapena ezartzen du. Arau-hauste horiek, aplikatzekoa den prozeduraren arabera, kasuan kasuko dosierra ireki ondoren, zehapena jaso dezakete.

Bukaeran xedapen gehigarri, iragankor, indargabetzaile eta azkeneko batzuk biltzen dira.

ATARIKO TITULUA **Orotariko xedapenak**

1. artikulua. Foru legearen xedea.

Foru lege honen xedea da neurriak hartzea, tabakoaren kontsumoak dakartzan arriskuetatik osasuna behar bezala babestera, kontsumitzen hastearen prebentziora eta herritarren bizi kalitatea hobetzeko aztura osasuntsuak bultzatzera zuzendutako jarduketak arautuko dituztenak.

2. artikulua. Definizioak.

Foru lege honetarako definizio hauek ematen dira:

a) Prebentzioa: tabakoa kontsumitzera bultzatzen dezaketen gizabanako, gizarte eta kulturaren faktoreak aldatzeko estrategia eta jarduketak multzo dinamikoa,

b) Babesa: Tabakoaren kontsumoak herritarren osasunerako dakartzan arriskuak desagerrazi edo gutxiagotzeko, bai eta kontsumo hori sustatzeko bideen aurrean herritarren eta haiek arnasteko airearen babeserako arau eta jarduketak multzoa.

c) Sustapena: Gizartea sentsibilizatzeko neurriak, osasunerako hezkuntza arlokoak, zerbitzuak eta baliabideak abiarazi eta birbideratzekoak, herritarren osasuna eta bizi kalitatea hobetzeko aztura osasuntsuak sustatzeko ekintzetarako.

d) Tabakoa: erre, arnastu, miazkatu edo mamurtzeko produktu guztiak, tabakoz eginak badira, hein batean edo osorik.

3. artikulua. Printzipio zuzentzaileak.

Nafarroako Administrazio Publikoek tabakoari buruz egiten dituzten jarduketak honako printzipio hauen arabera izan behar dira:

a) Arnasteko airearen kalitatea zaintzea, tabako-kearen kutsagairik izan ez dezan.

b) Tabako-erretzea arriskutzat jotzea gizabanakoaren eta kolektiboaren osasunerako.

c) Ohitura osasungarriak bultzatzea.

d) Tabakoa kontsumitzea edo haren balizko ondorioei aurrea hartzeko ekintzak lehenestea.

e) Foru Komunitateko hezkuntza, osasun eta gizarte sareetan tabakoari buruzko ekintzak txertatzea.

f) Gizartearen adostasuna lortzea neurri babesleak hartzeko, erretzaile ez direnek tabakoaren kerik ez duen aireaz gozatzeko duten eskubidea bete dadin; bereziki, adingabeak eta gaixoak kontuan harturik, leku itxietako kontsumoari dagokionez.

g) Tabakoa kontsumitzea esparru pribatuan gauzatzen den herritarren eskubidetzat hartzea.

I. TITULUA **Gaixotasunei aurrea hartu eta osasuna** **sustatzeko ekintzak**

I. KAPITULUA **Orotariko helburuak**

4. artikulua. Orotariko helburuak.

Nafarroako administrazio publikoek, zeinek bere eskumenak erabiliz, garatzen dituzten programak sustatu, garatu, bultzatu, koordinatu eta kontrolatzeko ekintzak bideratuko dituzte helburu hauek lortzeko:

a) Herritarrei jakinaraztea tabakoak dauzkan gai adikzio-eragileen eta kaltegarrien eta haien ondorio eta arriskuen berri, baita osasunaren gainean duten eraginaren berri ere.

b) Osasunerako heztea, ohitura osasungarri eutsiz tabakoa kontsumitzera bultzatzen duten jarreraren aurka.

c) Tabakoaren kontsumoan eragina duten gizarte, kultura eta ingurunearen arloko baldintzetan esku hartzea.

II. KAPITULUA Berariazko helburuak

5. artikulua. Argibideak.

Nafarroako Gobernuak argibide hauek ematen ditu tabakoaren kontsumoari aurrea hartzeko:

a. Tabakoa kontsumitzearen ondorioei buruzko argibide kanpainak garatuko ditu, jarrerak eta ohiturak aldatzeko, eta herritarrei erraztasunak ematen dizkie baliabideen gaineko argibideak eskuratzeko.

b. Tabakoaren joera, ohitura, inguruabar eta ondorioak atzemateko informazio eta zainketa epidemiologikorako sistema egokiak erabiliko ditu, prebentzioa ongi planifikatzeko.

c. Osasun, hezkuntza eta lan arloetako erabilzaile eta langileei tabakoaren ondorioei buruzko argibide gaurkotuak ematen dizkie, baita merkataritzako sektoreei ere.

6. artikulua. Osasuna sustatu eta osasunerako heztea.

Nafarroako Gobernuak ekintza hauek egiten ditu osasunerako hezkuntzaren arloan eta tabakoaren kontsumoari aurrea hartzekoan:

1. Erakunde eskudunekin batera tabakoa kontsumitzeari aurrea hartzea bultzatuko du ikaste-teeetan, hezkuntzaren eta osasunaren sustapenaren arloetan.

Horretarako, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak eskolako curriculumari gehitu ahalko dio, derrigorrezko hezkuntzan eta derrigorrezko hezkuntzaren ondokoan, osasunerako hezkuntzaren irakasgaia, osasun biopsikosozialarekin lotutako hainbat gai barne.

Edukiak eta programak Osasun Departamentuarekin batera ezarriko dira, behar den hitzarmenaren bitartez.

2. Toki entitateekin batera arituko da tabakoaren kontsumoari aurrea hartzeko udal planak prestatzeko, osasunaren sustapena abiapuntu.

3. Bestelako gizarte entitate edo taldeen ekinbideak bultzatuko ditu osasunerako hezkuntzan eta tabakoa kontsumitzeari aurrea hartzeko arloan.

4. Erakunde eskudunekin batera, osasun zientziatiko, irakasle-ikasketetako eta lan arriskuei aurrea hartzeko arloko ikasleak eta eskuarki gazteekin lan egiten duten langile guztiak prestatuko ditu tabakoaren kontsumoari aurrea hartzeari eta horretarako tratamenduari dagozkien gaietan.

7. artikulua. Ikerketa.

Nafarroako Gobernuak beharrezkotzat jotzen dituen azterlan eta ikerketa proiektuak bultzatuko ditu tabako menpekotasunari buruz.

Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Osasun Publikoaren Institutuaren bidez, Nafarroan saltzen diren tabako gaiei buruz egokitzen jotzen dituen ikerketak egiten ditu, bereziki nikotina, alkitran eta adikzioa sor dezaketen gaiei buruzkoak, eta, batez ere, gazteen artean daukaten eraginari buruzkoak.

III. KAPITULUA Osasun laguntza

8. artikulua. Orotariko helburuak.

Nafarroako Foru Komunitatean tabakozaletasuna tratatzeko egiten diren ekintzek osasun zerbitzuetan erretzetik gelditzeko laguntza eskatzen dutenendako sorospena bermatzea izanen dute xede.

9. artikulua. Jarduteko irizpideak.

1. Tabakoa uzteko programak garatzen dituzten zerbitzuak irizpide hauei jarraituz arituko dira:

a) Tabakoaren ondoriozko osasun arazoak gehienbat erkidego bakoitzean aztertuko dira, programak banatzerakoan berdintasun irizpideak erabilita.

b) Erretzeari Uzten Laguntzeko Programaren bidezko sorospena osasun sare publikoko laguntza maila guztietan bermatuko da eta eragin mesedegarria frogatua duten sendagaiak hartzeko aukera bilduko du, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan.

c) Eskaintzak eskuragarri, profesional eta diziplina artekoa izan beharko du. Gainera, jarreraren gaineko ekintzetan eta sendagaietan oinarrituko da eta talderik ahulenak, bereziki nerabeak, arreta bereziz hartuko ditu.

d) Erretzeari Uzten Laguntzeko Programarekin lotura daukaten osasun egitura guztiak eta maila guztietako osasun-langileak behar den moduan

egokitu eta prestatuko dira, foru lege honen helburua behar bezala erdietsi ahal izateko.

10. artikulua. Laguntzaren antolamendua.

Erretzeari uzten laguntzeko programen garapena bi laguntza mailatan osatuko da.

A. Lehenengo maila. Osaera:

- a) Oinarrizko osasun laguntzako taldeak.
- b) Lan osasuna eta lan arriskuei aurrea hartzeko zerbitzuak.

B. Bigarren maila. Osaera:

- a) Emakumeei laguntzeko zentroak.
- b) Adimen Osasuneko zentroak.
- c) Laguntza espezializatua eta gure Komunitateko bestelako zentro eta zerbitzu berariazkoak.

11. artikulua. Espetxeak.

Nafarroako Gobernuak, espetxeetan eskumena duen erakundearekin eta Foru Komunitateko espetxeetako osasun zerbitzuekin batera, tabakozaletasuna uzten laguntzeko programak abiatzen ahalko ditu.

12. artikulua. Lantokiak.

Nafarroako Gobernuak kontuan hartuko du tabakoaren kontsumoa lanpostuko arriskuak ebaluatu eta langileen osasuna zaintzerakoan.

IV. KAPITULUA

Administrazio publikoen eskumenak

13. artikulua. Nafarroako Gobernuaren eskumenak.

Indarra duten legeek ematen dizkieten gainerrako eskumenak ukatu gabe, Nafarroako Gobernuari dagokio:

a) Foru lege honen xede diren arloei loturiko behar, eskari eta baliabideak orokorrean planifikatu eta ebaluatzea.

b) Foru lege honetako arloan Nafarroako Foru Komunitateko administrazioek eta erakunde publikoek, pribatuek edo irabazi asmorik gabeko gizarte-ekimenekoek egin behar dituzten eginkizun, jarduketara eta zerbitzuak koordinatu eta antolatzeari.

c) Ikuskatzeko eta zehapenak ezartzeko ahalmena erabiltzea, foru lege honetako baldintzetan.

d) Osasun eta hezkuntza arloetako langileen dako prestakuntzarako diziplina arteko programak bultzatzea, baita zuzenean edo zeharka tabakoaren kontsumoari loturiko lanbide jarduerara dauka-

ten beste langileendako ere. Horretarako, beren baliabideak ez ezik beste administrazio publikoen eta prestakuntza proiektuak gauzatzen dituzten elkarten edo gizarte ekimenen laguntza ere izanen dute.

e) Beste administrazio publiko batzuekin batera, foru lege hau zuzentasunez betetzeko behar diren neurri guztiak hartzea.

14. artikulua. Toki entitateen eskumenak.

Indarra duten legeek ematen dizkieten gainerrako eskumenak ukatu gabe, Nafarroako toki entitateei dagokie:

a) Kasuan kasuko mugapean tabakoaren kontsumoari buruz egiten diren berariazko programak zuzendu eta beste programa batzuekin koordinatzea.

b) Ikuskatzeko eta zehapenak ezartzeko ahalmena erabiltzea, foru lege honetan aurreikusiriko baldintzetan.

c) Osasunerako hezkuntzaren arloan hezkuntza eta osasun sistemekin lankidetzan aritzea.

15. artikulua. Tabakoari buruzko Ekintzetarako Foru Plana.

Nafarroako Gobernuak Tabakoari buruzko Ekintzetarako Foru Plana zuzendu eta koordinatzeko organoen antolamendua eta funtzionamendua ezarriko du, haren aurreikuspenekin bat, foru lege honetan eta hau garatzeko ematen diren xedapenetan ezarritakoari lotuz.

16. artikulua. Finantzaketa.

Nafarroako Gobernuak urtero foru lege honetan aurreikusten diren ekintzak egiteko behar den dirua sartuko du Foru Komunitateko aurrekontuetan.

II. TITULUA

Osasuna babesteko ekintzak

I. KAPITULUA

Tabakoaren merkataritza-komunikaziorako eta zabalkunderako murriztapenak

17. artikulua. Tabakoaren merkataritza-komunikazio, zabalkunde eta babesletzarako baldintzak.

1. Estatuko legeetan, haren eskumenen barruan, xedaturikoa ukatu gabe, Nafarroako Foru Komunitatean debeku da tabako produktuen merkataritza-zabalkunde, bai zuzenekoa, bai zeharkakoa, baimenduriko saltokietan aurkezten diren produktuena izan ezik.

Tabako-produktuen publizitatea eta hedabideen bidezko beste edozein merkataritza-komunikazioko modu egonen dira arlo honetako Estatuko legeen menpe.

Nafarroan ezin izanen dira banatu edo saldu haur edo gazteentzako argitalpen inprimatuak eta aldizkariak, baldin eta tabako kontsumoaren publizitate zuzena edo zeharkakoa badute.

2. Nafarroako Foru Komunitatean pertsona fisiko edo juridikoek ezin babestuko dute kirolrik, kultur jarduerarik edo bestelakorik, haien jarduera nagusia edo ezaguna tabakoa ekoitzi edo saltzea bada, horrek berekin badakar babes hori edo tabakoarekin loturiko marka, ikur edo irudiak agertaraztea.

Ezin izanen da publiziterik edo beste edozein motatako merkataritza komunikaziorik paratu garraio publikoaren zerbitzuko geltokietan ez eta bide publikoetako paneletan ere.

3. Artikulu honetako debekuak mota guztietako merkataritza-komunikazioetara iristen dira, zuzeneko nahiz zeharkakoetara, baita beren izen, grafismo, aurkezpen edo beste edozein arrazoi-rengatik tabakoaren ezkutuko merkataritza-komunikazioa egin dezakeen gauzaki edo produktuen merkataritza-komunikaziora ere.

4. Foru lege honetako kontzeptuak:

– Publizitatea: pertsona fisiko edo juridiko batek, publiko zein pribatu, merkataritzan, esku-langintzan edo edozein lanbidetan jardutean, tabakoaren edozein produkturen zuzeneko edo zeharkako zabalkunderako eginiko komunikazio mota oro.

– Tabako saltokiak: tabakoaren produktuak saltzen direneko edozein toki.

– Babesletza: gertaera, jarduera edo gizabako bati laguntzeko edozein ekintza publiko edo pribatu, haren helburua edo zuzeneko edo zeharkako ondorioa tabakoaren produktu baten zabalkundera egitea bada.

18. artikulua. Tabako kontsumoaren zabalkundera.

1. Nafarroako Foru Komunitatean debeku da tabakoaren zabalkundera, hala nola, feria, lehiaketa, erakusketa, azoka eta antzeko ekitaldietan, edozein tokitan delarik ere.

2. Tabakoa ekoitzi, landu eta banatzen deneko tokietarako bisitetan ezin eskainiko zaie produkturik 18 urtetik beheitikoei.

II. KAPITULUA Tabakoa saltzeko murriztapenak

19. artikulua. Tabakoa saltzeko murriztapenak.

1. Nafarroako Foru Komunitatean debeku da tabakoa, haren produktuak, haren produktu-multzoak edo haren imitazioak dohainik edo diru truk 18 urtetik beheitikoei saldu, hornitu edo banatzea.

Tabakoa edo haren produktuak saldu edo hornitzen diren establezimendu guztietan afixak paratu beharko dira, ikusgai, produktu haietatik gertu, debeku hori adierazten dutenak.

2. Tabakoa saltzen ahalko da eskuz, horretarako baimenduriko establezimenduetan, edo makina automatikoen bidez. Makina automatikoen bidez saltzen bada, establezimenduaren titularraren erantzukizunaren pean egonen da makina, eta titularraren edo langileen zaintzapean. Makina horien aurrealdeko azalean, ikusgai, adierazi beharko da 18 urtetik goitikoek debeku dutela tabakoa erostea.

3. Toki hauetan debeku da tabakoa saldu eta hornitzea.

a) Nafarroako erakundeetan eta Nafarroan dauden administrazio publikoetan eta hauen erakunde autonomoetako zentro eta bulegoetan.

b) Osasun zentroetan, zentro soziosanitarioetan, gizarte zerbitzuetan eta haien bulegoetan.

c) Ikastetxeetan.

d) Kirol jarduerak hartu ahal dituzten instalazioetan, salbu eta horien kafetegietan edo tabernetan.

e) Adingabeak hartu edo haiek jolasteko tokietan.

f) Kale eta errepideetan.

20. artikulua. Salmenta makinak.

Nafarroako Gobernuak sistema berriak sartzeko neurriak bultzatuko ditu adingabeek gero eta zailtasun handiagoa izan dezaten salmenta makinaren bidez tabakoa erosteko.

III. KAPITULUA Arnasteko airea tabako kearen kutsaduratik babestea

21. artikulua. Tabakoa kontsumitzeko murriztapenak.

1. Erretzaileek eta erretzaile ez direnek elkarrekin bizi behar duteneko eremu publiko edo kolektibo orotan, nagusituko da erretzaile ez dire-

nek tabakoaren kearen ondoriozko kutsadurarik ez duen airea arnasteko daukaten eskubidea. Erretzeko eskubide osoa norbanakoarena da, eremu pribatukoa, eta gizartearen eremuan arautu egiten da hirugarrenei eragin dakiekeen kaltearengatik.

2. Debeku da erretzea:

a) Zentro, zerbitzu edo establezimendu sozio-sanitarioetan eta osasun arlokoetan.

b) 18 urtetik beheitikoendako gizarte laguntzako zentroetan, zaharrendako gizarte laguntzako zentroetan eta ezgaituendako gizarte laguntzako zentroetan.

c) Haurrak eta gazteak jolastu eta aisialdian egoteko atez barruko tokietan.

d) Unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan.

e) Unibertsitateetan edo adindunendako ikastetxeetan.

f) Atez barruko kiroldegietan.

g) Irakurketa, mintzaldi, erakusketa, museo edo antzeko kontuuetarako guztien erabilera publikoarako aretoetan.

h) Antzerkirako, zinemarako eta atez barruko bestelako ikuskizun publikoetarako aretoetan.

i) Administrazio publikoetako langela eta bulegoetan eta jendearekin harreman zuzenean aritzeko guztietan.

j) Emakume haurdunek lan egiten duteneko edozein lantokitan.

k) Tabakoaren kaltea eta industri kutsagaiak nahasteagatik langileen osasunerako arrisku handiena dagoeneko tokietan.

l) Bi pertsonak edo gehiagok partekatzen dituzten atez barruko lantokietan.

m) Atez barruko merkataritza-guneetan.

n) Autobus edo tren geltokietako eta aireportuetako itxarongeletan.

ñ) Garraio publiko kolektiborako edozein ibilgailutan, delarik hiri barrukoa, delarik hiri artekoa, ikasleak garraiatzeko ibilgailuak barne eta soilik edo hein batean 18 urtetik beheitikoak edo eriak garraiatzeko erabiltzen diren guztiak barne.

o) Elikagaiak egin, eraldatu, maneiatu, prestatu edo saltzen diren toki guztietan, elikagaiak kontsumitzeko direnetan izan ezik. Horietan, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan, erretzaileendako eta ez-erretzaileendako eremuak bereiziko dira.

p) Igogailuetan eta airetze gutxiko toki txikietan, pertsonak erabiltzekoak badira, instalazio publikoetan eta pribatuetan.

q) Erregelamendu bidez zehazten diren tokietan, idatz-zati honetan aipaturikoen antzekoetan.

3. a), b), e), f), h), i), j), l), m), n) eta o) letretan aipatzen diren tokietan, erretzeko berariaz prestatuturiko guneak egonen dira, ez-erretzaileentzako guneetatik bereziak. Gune hauek, a) eta e) letretan aipatzen diren zentroetan, bermatu behar dute bi gune izanen direla, elkarrengandik bereziak eta elkarrekiko loturarik gabeak, bata zerbitzuen erabiltzaileendako eta bestea toki, zerbitzu edo establezimenduko langileendako. Bereizketa hori bermatzerik ez badago, toki guztian debeku izanen da erretzea.

4. Behin-behineko bereizketak antolatzen ahalko dira, aldi baterako, aurreko idatz-zatian aipaturiko kasuetan. Hala ere, erretzaileendako guneek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Argi eta garbi bereizirik egotea eta airetze sistema egokiak edukitzea.

b) Erretzaile ez direnendako nahitaezko pasabideetan edo itxarongeletan kokaturik ez egotea.

c) Euren kokapena argi eta garbi adierazirik egotea seinaleen bidez.

Baldintza horiek betetzerik ez badago, toki osoa kerik gabekoa izanen da.

5. 2. idatz-zatian aipatzen diren tokien artean ez dira izanen haietan kokaturiko ostalaritza tokiak, baldin eta 3. idatz-zatian aipatzen diren betebeharrak betetzen badituzte. Bestela, kerik gabekoak izanen direla joko da.

6. Erretzeko debekua duten toki guztiek erreklamazio orriak izanen dituzte interesatuen esku.

22. artikulua. Seinaleak.

Aurreko artikuluan aipatzen diren toki, lokal edo eremu guztietan erretzeko debekua ikusgai eta ongi seinalatua izanen da.

23. artikulua. Tabakoaren kerik gabeko guneak.

Pertsonak elkartzen diren gela, esparru, zentro edo establezimendu publiko edo pribatu guztiak izanen dira tabakoaren kerik gabeko guneak, baldin eta tabakoaren produktuen merkataritza-komunikazioa, kontsumoa eta salmenta bazterturik badaukate. Horietan erretzen ahalko da horretarako tokietan bakarrik, halakorik bada.

Jendeari irekita dagoen zentro edo establezimendu baten titularrak, haren erabilera edozein

delarik ere, debekua ematen ahalko du bertan erretzeko, aldez aurretik seinaleen bidez behar bezala adieraziz, erabiltzaileek jakin dezaten.

24. artikulua. Tabakoaren kerik gabeko zentro edo jarduerak.

1. Osasun Departamentuak zentro, establezimendu edo jarduera bat "tabakoaren kerik gabeko zentro/jardueratzat" deklaratzeko ahalko du hartzen duen toki guztian debeku bada tabakoaren merkataritza-komunikazioa, salmenta eta kontsumoa.

Deklarazio horren berri kanpoaldera emanen da erregelamenduz ezartzen den moduan.

2. Osasun Departamentuak pizgarriak sustatuko ditu zentro, zerbitzu edo establezimenduen titular edo arduradunek deklarazio hura eska dezaten.

III. TITULUA

Zehapen araubidea

I. KAPITULUA

Orotariko xedapenak

25. artikulua. Organo eskudunak.

Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legean aipatzen diren osasun agintariak, zehapenak ezartzeko ahalmena dutenak, dira eskudunak foru lege honetan tipifikatzen diren arau-hausteen ondoriozko zehapenak ezartzeko.

Osasunari buruzko 10/1990 Foru Legean aipaturiko osasun arloko agintariei, alegia, Nafarroako Gobernuari, Osasun Departamentuko kontseilariari eta zuzendari nagusiari eta alkateei, nori bere esparruan, dagokie foru legea gauzatu eta betetzea, eta ebaluazio, kontrol, ikuskapen eta, kasu bada, egiaztaturiko arau-hausteen zehapena.

Foru Komunitateko administrazioa aritzen ahalko da udalen ordezkari toki araubideari buruzko legeetan aipatzen diren kasuetan eta haietan aipaturiko betebeharrak beterik.

26. artikulua. Erantzukizuna duten subjektuak.

Foru lege honetan tipifikatzen diren egite edo ez-egiteetan erortzen diren pertsona fisiko edo juridikoek dute erantzukizuna arau-haustean.

Entitate, establezimendu, enpresa edo zerbitzuen titularrek eta haien menpeko pertsonen erantzukizun solidarioa izanzen dute, egitez edo ez-egitez baimentzen edo onartzen dutenean haien langileek edo oro har jendeak arau-hauste horiek egitea.

27. artikulua. Ikuskaritzak.

1. Administrazioko funtzionarioek, behar bezala kreditaturik, egiten ahalko dituzte ikuskaritzak. Funtzionario horiek eginkizun horietan jardutean agintaritzaren agentetzat joko dira.

2. Entitate, establezimendu, enpresa edo zerbitzuen titularrak eta haien ordezkariak behartuak egonen dira ikuskaritzan diharduten funtzionarioei sartzen uztera, eginkizun horietan aritzeko behar bezala kreditaturik egonez gero. Eginkizun horiek betetzeko behar duten lankidetzak eman beharko diete.

3. Ikuskaritzaren ondorioa akta batean adierazi beharko da.

4. Eginkizun horietan aritzean, ikuskaritzako agenteek agintaritza eskudunaren laguntza edukitzen ahalko dute.

28. artikulua. Prozedura.

Tabakoari dagokionez prebentzio, babes eta osasuna sustatzearen arloko arau hausteak zehapen administratiboan xede izanzen dira, zehapen dosierra ireki ondoren.

29. artikulua. Arau-hausteen eta zehapenen preskripzioa.

1. Foru lege honetan aipatzen diren arau-hauste arinek sei hilabeteren buruan preskribatuko dute; larriek, urtebeteren buruan; eta oso larriek, bi urteren buruan. Preskripzio-epea arau-haustea egiten deneko egunean hasiko da zenbaitzen.

2. Halaber, zehapen arinek sei hilabeteren buruan preskribatuko dute; larriek, urtebeteren buruan; eta oso larriek, bi urteren buruan. Preskripzio-epea zehapena ezartzen duen ebazpena irmo bihurtu eta biharamunean hasiko da zenbaitzen.

II. KAPITULUA

Arau-hausteak

30. artikulua. Arau-hausteak.

1. Tabakoari dagokionez prebentzio, babes eta osasuna sustatzearen arloko arau-hauste administratiboak dira foru lege honetan tipifikatu eta zehatzen diren egite edo ez-egiteak, izan litezkeen erantzukizun zibil edo penalak ukatu gabe.

2. Arau-hausteak arinak, larriak edo oso larriak izan daitezke.

2.1. Arau-hauste arinak:

a) 21. artikuluan tabakoa erretzeko aipatzen den debekua zentroen edo jardueraren arduradunek ez betetzea.

b) Foru lege honetan aipatzen diren eginbehar formalak edo kanpoaldean seinaleak paratzekoak ez betetzea.

c) Agintaritza eskudunak eskaturik, argibideak edo jakinarazpenak eman edo agertzean atzertzea.

d) Foru lege honen beste edozein ez-betetze, arau-hauste larri edo oso larritzat tipifikaturik ez badago.

2.2. Arau-hauste larriak.

a) Arau-hauste arinetan berrerortzea.

b) Tabakoaren merkataritza-komunikazio eta zabalkundearen murriztapenei buruz 17 eta 18. artikuluetan xedaturikoa ez betetzea, eta 19. artikuluan tabakoaren salmentari eta hornidurari buruz xedaturikoari aurka egitea.

c) Ikuskaritzako zerbitzuei argibiderik edo laguntzarik ez ematea eta gezurrezko argibideak ematea.

d) Foru lege honetan aipatzen diren betebeharrak, baldintza, eginbehar edo debekuak ez betetzea, baldin eta, artikulua honetan ezarritako irizpideen arabera, arau-hauste larritzat jo behar bada (oso larritzat jo ezik).

2.3. Arau-hauste oso larriak:

a) Arau-hauste larrietan berrerortzea.

b) Osasun arloko agintarien edo haien agenteen kontra, kontrolatzen edo ikuskatzen ari direla, bortxa, mehatxuak, mendekuak, desmena edo beste edozein indar mota egitea.

c) Osasun publikoari kalte larria egiten dioten arau-haustekak.

d) Foru lege honek zehazten dituen betebeharrak, baldintza, eginbehar edo debekuak ez betetzea, baldin eta, artikulua honetan ezarritako irizpideekin bat, arau-hauste oso larritzat jo behar bada; bereziki, herritarrendako zuzeneko eragina duen nahasmena edo osasun arriskua sortzen badu.

III. KAPITULUA Zehapenak

31. artikulua. Mailak.

1. Foru lege honetan aipatzen diren arau-hausteengatik mota bakoitzari gutxieneko eta gehieneko maila emanez ezarritako dira zehapenak, irizpide hauek erabilita: osasunerako arris-

kua, nahasmenak gizartean izaniko eragina, eginko kaltea, zenbat pertsona ukitu dituen, sorturiko arriskuaren iraupena, bidezko ez den moduan irabaziaren zenbatekoa, asmo txarra eta aurreko ohartarazpenak bete ez izana. Hori guztia, Osasunari buruzko 10/1990 Foru Legeko 29. artikuluan eta aplikatzeak diren xedapenetan ezarritakoari jarraituz.

2. Larritasun berezia, arau-hauste etengabea edo osasun publikorako eragin larria izanez gero, Nafarroako Gobernuak erabakitzen ahalko du jarduera aldi baterako etetea edo entitateak, establezimenduak, enpresak edo zerbitzuak aldi baterako ixtea, gehienez ere bost urtez.

3. Aurreko idatz-zatian aipatzen diren kasuetan erabakitzen ahalko da araua hautsi duen partikularrari edo entitateari ezeztatzea edo etetea hark Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari eskaturiko edozein motatako dirulaguntza edo sorospen finantzario.

Lehen xedapen gehigarria. Nafarroako Gobernuak urtero gaurkotzen ahalko ditu, foru dekretu bitartez, foru lege honetan aipatzen diren zehapenen zenbatekoak, estatistikaren arloan eskumena duen organoak ezartzen dituen kontsumorako prezioen indizeei jarraituz.

Bigarren xedapen gehigarria. Tabakoa salteko makinak fabrikatzen dituzten enpresek, foru lege hau onesten denetik aitzina, bi urteko epea izanen dute funtzionatzen ari diren makina automatikoen mekanismo teknologikoak izan ditzaten, tabakoa norik erosi kontrolatu ahal izateko eta adingabeek tabakoa makinetan erostea galarazteko.

Lehen xedapen iragankorra. Foru lege honek indarra hartu baino lehen kontrataturiko publizitatea ukitzen duten murriztapenak, tabakoaren merkataritza-komunikazio eta zabalkundearenak, ezin aplikatuko dira lege hau argitaratzen denetik sei hilabete iragan arte.

Bigarren xedapen iragankorra. Entitateek, establezimenduek, enpresek eta zerbitzuek sei hilabeteko epea izanen dute foru lege honen aginduetara egokitzeko, indarra hartzen duenetik hasita. Epe hori bukatzen denean aginduak erabat aplikatzeak izanen dira.

Hirugarren xedapen iragankorra. 21. artikuluko 2. idatz-zatiko l) letran aipaturiko debekua betetzea ezin izanen zaie eskatu ukituriko enpresei harik eta foru lege honek indarra hartzen duenetik bi urte igarotzen diren arte. Ezarritakoa arian-arian gauzatuko dute enpresek, langileekiko ulermen giroan.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Foru lege honetan xedaturikoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak indarrrik gabe gelditzen dira.

Azken xedapenetan lehena. Eskumena ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege hau

garatu eta betearazteko behar diren arau guztiak eman ditzan.

Azken xedapenetan bigarrena. Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogeit egunera.

Foru Legea, turismoari buruzkoa

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2003ko otsailaren 6an egindako Osoko Bilkuran, Turismoari buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2003ko otsailaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Turismoari buruzko Foru Legea

ZIOEN AZALPENA

I

Nafarroako Foru Komunitatea, gero eta gehiago, turismoaren balioak garatzen ari da bere lurraldean, bere berezko izaerari eta kultura-, natura- eta monumentu-ondareari lotuak gehienbat.

Azken urte hauetan faktore batzuk elkartu dira turismoari buruzko foru lege bat lehenbailehen ematera behartzen zutenak. Turismoaren eredu aldatu da, orain gehiago bilatzen baita jarduera horren nolakoa zenbatekoa baino eta gainera ohi ez bezalako aukera turistikoak eskaini nahi baitira, eskari berriak asetzeko. Hori dela eta areagotu egin da turismoaren garrantzia. Horrekin batera, Foru Komunitatean sektore bat pizten ari da, hemen beti egon bada ere, orain herritarrak konturatzeko ari baitira haren esanahiaz eta haren ahalmenaz. Ildo horri lotuz, turismoaren alorrean eskumena duen departamentuak berriki prestatu du Nafarroan 2001-2004 urteetan sektore turistikoaren sendotu eta garatzeko plan estrategikoa, sektore horretan diharduten eragileek kemenez parte hartuta. Plan hori funtsezko osagai bat da, horretan bildu baitira Nafarroako turismoaren puntu sendoak eta ahulak eta gero batean egin beharreko urratsak ere bai.

Plan estrategiko horren zehaztapenatariko bat da turismoari buruzko foru legearen beharra. Izan ere, Nafarroako Foru Komunitatea horrelakorik ez duten lurraldeatariko bat da, nahiz eta Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoko 44. artikuluko 13. idatz-zatiak alor horretan espresuki erabateko eskumenak aitortzen dizkion. Erabateko eskumen hori bakarrik Nafarroako diziplina turistikoari buruzko azaroaren 17ko 14/1997 Foru Legearen bidez garatu da. Lege horrek, bere ize-nak dioenez, diziplina eta zehapen araubidea bes-

terik ez ditu biltzen. Foru lege honen xedeak gartzetxe zegoen alor batean Nafarroako autogobernua bultzatzea ez ezik Turismoarako plan estrategikoan espresuki eta behin eta berriro aipatzen den beharra betetzea ere badira. Gainera halaxe eskatzen dute Nafarroako eragile turistikoek. Horrez gain, Estatuko arautegi osagarria Konstituzioa baino lehenagokoa da eta aldatu beharreko eredu gainditu eta zaharkitu bati dagokio.

II

Foru lege honen xede den sektore turistikoaren egoera askotarikoa da. Izan ere, turismoa antolatu beharraz gain, badira beste lehentasun batzuk, hala nola, Nafarroako baliabide turistikoak baloraztea eta Nafarroa helburu turistiko gisa sustatzea. Turismoan diharduten eragile publiko eta pribatuek helburu horietan lortu behar dituzte elkarlanean eta modu koordinatuan arituz, jarduketak bateratu eta ildo berak nabarmentzeko eta alfer-lana saihesteko. Ez dugu ahanzten ahal turismoaren garapenak Nafarroan helburu nagusi duela nafarren eskuetan bizitza kalitatea mantentzeko eta hobetzeko tresna eta aukera multzoa uztea.

Ikuspegi horretatik, Nafarroako sektore turistikoaren arazoan alderdi nabarmenenak foru lege honen printzipio bihurtu dira, halakoxetza jotzen baitituzte horretan dihardutenek. Printzipio horiek arauketaren oinarri ez ezik, bereziki botere publikoaren eta eragile pribatuen jarduketaren mami bihurtu behar dute jarduera turistikoetan. Foru lege honetako 4. artikuluan aipatzen diren printzipioetan, lehenbizikoa, Nafarroa helmuga turistiko bakartzat jotzea da. Horren ondorioz herrialdea osorik hartuta sustatuko da. Horrez gain, eragileek elkarlanean eta koordinaturik jardun beharko dute eta bestalde, kalitatea, ingurune eta kultur ondarearekiko begirunea eta haien jasagarritasuna izanen dira nahitaezkoak turismo jarduerak gauzatzean.

III

Baldintza horietan, foru legeak zazpi titulu, 69 artikulua, xedapen gehigarri bat, xedapen iragankor bat, bi xedapen indargabetzaile eta hiru azken xedapen dauzka.

I. tituluak foru legearen xedea, haren aplikazio esparrua, haren helburuak eta haren printzipioak biltzen ditu. Guztiz nabarmentzekoa da 4. artiku-

lua, jadanik aipatua, foru legea arautzen duten printzipioak biltzen baititu. Izan ere, horiek jarduera turistikoak garatzeko printzipioak ere badira, oinarrizkoak eta funtsezkoak. Horrexegatik sartu dira I. titulu horretan. Aipatzekoa da Nafarroa helmuga turistikotzat jotzeko lehen printzipioa bat datorrela Nafarroako Parlamentuak 2000ko maiatzaren 24an onetsitako erabakiarekin.

II. tituluaren gaia turismoan parte hartzen duten administrazio publikoen eskumenak dira. Foru legean eskumen banaketa zehatz bat egiten da, Foru Komunitateko administrazioari eta toki entitateei ematen zaizkienak bereizten baitira, udal autonomiaren printzipioa guztiz errespetatuz. Betiere, titulu horretan foru legeko 4. artikuluko bigarren printzipioa gauzatzen da, administrazio publikoen arteko elkarlanerako tresnak finkatzen baitira eta gainera eragile pribatuek parte hartuko baitute turismorako politika zehazterakoan.

III. tituluaren jarduera turistikoa antolatzen da. Gauza berria da 12. artikuluan jarduera turistikoari buruz foru legean erabiltzen diren kontzeptu nagusien zerrenda bat osatzea: baliabide turistikoa, jarduera turistikoa, enpresa turistikoa, enpresaz bestelako entitate turistikoa eta establezimendu turistikoa. Jarduera turistikoaren araubide juridikoari dagokionez, foru legean ez da aukeratu "baimena", administrazioak esku hartzeko ohiko araubidea bada ere. Alor honetan administrazioaren kontrol bakarra Nafarroako Turismo Erregistroan inskribatzea izan da. Horrela aldez aurreko baimena eman beharrean kreditazioa eginen da, ohitura modernoagoa baita, inskribatzerakoan egiten dena. Askatasunez jarduteko araubide honetan gainera administrazioaren isiltasun positiboa ezartzen da. Hori dena kasu batzuetan aldez aurretiko sailkapena edo titulu-lizentzia eskatzea galarazi gabe, toki entitateen lizentzia egokiak lortuta. Gero, III. tituluarean ondorengo kapituluetan jarduera turistikoa guztiak arautzen dira, orain arte arautegi batean ere aipatzen ez direnak: ostatua, sukaldaritza, bitartekotza turistikoa, jarduera osagarriak eta lanbide turistikoa. Haietariko bakoitzean gutxienezko araubide zehatz bat ere ematen da. Arauketa zehatzagoa erregelamenduaren esku uzten da, egunero sektore turistikoa gertatzen diren aldaketa garrantzitsuak direla eta, araudia sektore horren aldakortasunera egokitu ahal izateko.

IV. tituluaren turismoaren alorreko eskubide eta betebeharrak aipatzen dira. Erabiltzaile turistikoaren eskubide eta betebeharrak nabarmentzen dira, haiexek baitira zerbitzu turistikoaren azken kontsumitzaileak. Horregatik kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideen babesari buruzko araudian

orokor gisa aipatzen diren eskubide eta betebeharrak espresuki zehazten dira. Hona hemen eskubide horiek: informazioa, kalitatea, dokumentazioa eta fakturak, bereizkeriarik eza eta segurtasuna.

V. tituluaren baliabide turistikoak arautzen dira, alor hori asko ere asko nabarmendu baitzuen Turismorako Plan Estrategikoak. Orain lege egiten da, gero, garatzerakoan, baliabide horiek balioztatu, babestu eta hobetu daitezten. Nafarroa egoera berezian dagoenez, natur baliabideei eta monumentuei garrantzi berezia ematen zaie, irizpide gisa hartuz aprobetxamendu turistikoa eta haien zainketa bateragarri egitea.

VI. tituluak turismoa ezagutarazi eta sustatzea ukitzen du. Horretan behar gorri bat aipatzen da. Izan ere, ezagutarazpena nahitaezko jardura bat da Nafarroa turisten helmuga bihurtzeko, turismo, natura eta monumentuen alorrean baliabide garrantzitsuak baititu. Foru Legeko 4. artikuluan jasotako printzipioak oinarria, ezagutarazpen turistikoa alderdi garrantzitsuak dira hurrengo hauek: Nafarroaren irudia indartzea helmuga turistikoa bakar gisa, eta eragile publiko eta pribatu guztien arteko elkarlana. Ezagutarazteaz gain, Foru Komunitateko administrazioak Nafarroako sektore turistikoa sustatu behar du kalitatearen printzipio orokorra praktikan jartzearen ildoan. Egiteko horien ondorio dira argibide turistikoa (non, berriro ere, elkarlan eragaginkorra beharrezkoa den), sektorearen profesionalizazioa eta elkartegintza, sektorea sustatu eta hobetzeko ahaleginak biltzeko.

Diziplina turistikoari buruzko VII. titulua neurri handi batean Nafarroako diziplina turistikoari buruzko azaroaren 17ko 14/1997 Foru Legeak urraturiko bideari lotu zaio. Lege hori orain espresuki indargabetzen da. Gainera, aldaketa batzuk ere sartu dira, bai egiturazkoak, legezko argitasun handiagoa eskaintzeko, bai edukizkoak, bertako aginduak zehapenei buruzko Estatuko oinarrizko legeek alor horretan eginiko aldaketetara egokitzeko.

I. TITULUA Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea.

Foru lege honen xedea da Nafarroako Foru Komunitatearen sektore turistikoa arautu, haren helburu eta printzipioak ezarri, Nafarroako administrazio publikoek zerbitzu turistikoak emateko jarduerak eta kalitatea antolatu eta sustatzeko egin beharrekoak zehaztu, turismoaren alorrean dihardutenen eskubide eta betebeharrak finkatu eta Nafarroako baliabide turistikoak sendotzea.

2. artikulua. Aplikazio esparrua.

Foru lege hau jarduera turistikoan diharduten subjektu guztiei aplikatuko zaie eta bereziki:

a) Nafarroako Foru Komunitatean turismoan diharduten pertsona fisiko eta juridiko guztiei.

b) Sektore turistikoaren alorrean esku hartzen duten administrazio publikoei eta haien menpeko entitate, erakunde edo pertsona publiko edo pribatuei, sektore horretan badihardute.

c) Turistei edo jarduera eta zerbitzu turistikoak darabiltzatenei.

d) Nafarroako Foru Komunitatean diharduten enpresa turistikoaren titular edo kudeatzaileen elkarteei.

3. artikulua. Helburuak.

Foru lege honen helburuak hauexek dira:

a) Turismoa bultzatzea, gizartean eta ekonomian eragina duen sektorea baita, lana eta aberastasuna sortzen duena.

b) Nafarroako Foru Komunitatea helmuga turistiko gisa ezagutaraztea.

c) Turismoa bultzatzea, ez bakarrik jarduera ekonomiko gisa, baizik eta Nafarroako eskualdeak, kultura, ekonomia eta gizartea ezagutzeko gizarte-balio gisa ere bai.

d) Nafarroako administrazio publikoek turismoaren alorrean dituzten eskumenak bereiztea eta haien jarduketak elkarlanean eta lankidetzan koordinatzea.

e) Jarduera turistikoa antolatzea ingurumenarekiko errespetuarekin bateragarri eginez.

f) Turisten edo erabiltzaile turistikoaren eskubiak babestea.

g) Baliabide turistikoak babestu eta sendotzea.

h) Sektoreko profesionalen heziketa eta espezializazioa bultzatzea.

4. artikulua. Printzipioak.

Hona hemen foru lege honen oinarritzko printzipioak:

a) Nafarroak tratamendu bateratua izanen du helmuga turistiko gisa ezagutarazten denean, Nafarroako Foru Komunitateak bere aniztasunagatik daukan potentziala bilduz.

b) Administrazio publikoen, haien erakunde, organo administratiboaren eta partzuergo turistikoaren, enpresa eta establezimendu turistikoaren arteko

harremanak koordinazio, elkarlan eta lankidetzaren printzipioei lotuz arautuko dira.

c) Jarduera turistikoaren garapenaren kalitatea.

d) Nafarroako Foru Komunitatean sustatuko den turismoak begirunea, hobekuntza eta jasangarritasuna kontuan hartuz lagundu beharko du Nafarroako herritarrak, bertako espazio fisiko eta naturala eta kultur ondarea garatzen.

e) Sustapen turistikoa, Nafarroako eskualdeen arteko orekarako eta landa bizi mantendu eta garatzeko faktore estrategikoa den aldetik.

II. TITULUA**Administrazioen eskumenak eta antolamendua****I. KAPITULUA****Eskumenak**

5. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eskumenak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari dagozkio turismoaren alorreko eskumen hauek:

a) Foru Komunitateko turismorako politika prestatu eta aplikatzea.

b) Nafarroaren irudia helmuga turistikotako bultzatzea.

c) Foru Komunitatean turismoa planifikatu, antolatu eta sustatzea.

d) Foru lege hau erregelamendu bidez garatzea eta 3. artikuluan aipatzen diren helburuak lortzeko behar diren arauak eman eta neurriak hartzea.

e) Turismoaren sustapena eta argibide turistikoak Nafarroan koordinatzea.

f) Sektore turistikoan kalitate programak sustatzea.

g) Inskripzio, sailkapen, ikuskapen eta zehapen arloetako administrazio-ahalmenak erabiltzea, foru lege honetan xedatu bezala.

h) Sektore turistikoaren profesionalizazioa bultzatzea.

i) Turismoko erregistroak sortu eta kudeatzea eta sektore turistikoko estatistikak egitea.

j) Legeek eta bestelako arauak turismoari buruz ematen dizkioten bestelako eskumen guztiak.

k) Ostatu-emaleen, bisitarien eta merkatuaren gaineko azterlanak egitea aldira, eta horiek turis-

mo enpresen eta enpresaburu elkarteen esku uztea.

2. Eskumen horiek erabiltzean, Foru Komunitateko administrazioa saiatuko da, behar denean, Estatuko administrazio orokorrarekin koordinatzen eta hitzartzen, baita toki entitateekin ere.

6. artikulua. Toki entitateen eskumenak.

Nafarroako toki entitateei eskumen hauek dagozkie turismoaren arloan.

a) Turismoari loturiko baliabide, jarduera eta bestelako kontuak sustatu eta bultzatzea, beren interesekoak badira, Foru Komunitateko administrazioarekin koordinaturik.

b) Baliabide turistikoak babestu eta zaintzea, bereziki ingurune naturala eta monumentu ondarea.

c) Turismoaren alorrean Nafarroako Foru Komunitateko administrazioarekin elkarlanean aritzea.

d) Enpresa eta establezimendu turistikoek dagokienez, legeen arabera dagozkien baimenak ematea.

e) Beren eskumeneko azpiegitura turistikoek politikak garatzea.

f) Ordenamendu juridikoaren arabera dagozkien zerbitzuak kudeatzea.

g) Legeek turismoari buruz ematen dizkieten beste eskumen guztiak.

7. artikulua. Administrazioen arteko harremanak.

Administrazioen eta haien menpeko erakundeen arteko harremanak eragingarritasun, koordinazio, elkarlan, lankidetzeta eta informazio-trukaketaren printzipioen arabera izanen dira.

II. KAPITULUA
Administrazioaren antolamendua

8. artikulua. Turismoaren antolamendua alorrean eskumena duen Departamentuan.

1. Foru Komunitateko administrazioak turismoari buruzko eskumenak unean-unean bere gain dituen departamentuaren bidez erabiliko ditu eta, departamentu horren barruan, ezarririk daukan egitura administratiboaren bidez.

2. Aurreko idatz-zatian aipatzen diren eskumenak erabiliko dira Nafarroako Gobernuari kide antzako organoa den aldetik dagozkion eskumenak galarazi gabe eta Foru Komunitateko administrazioiko beste departamentuekiko elkarlanean.

3. Eskumen horiek erabiltzeko, turismoaren alorrean eskudun den departamentuak organo eta erakunde hauek izanen ditu:

a) Nafarroako Turismo Kontseilua.

b) Departamentu arteko Turismo Batzordea.

c) Turismo Partzuergoak.

9. artikulua. Nafarroako Turismo Kontseilua.

1. Nafarroako Turismo Kontseilua turismoaren alorrean Foru Komunitateko administrazioaren kontsulta eta aholku organoa da.

Nafarroako Turismo Kontseiluari eginkizun hauek dagozkie:

a) Turismoaren alorrean Foru Komunitateko administrazioari aholkuak ematea.

b) Turismoaren alorrean eskudun den departamentuak eskatzen dizkion azterlanak prestatu eta txostenak egitea, haien artean plan estrategikoei eta kalitate planei buruzkoak.

c) Turismoaren alorrean eskudun den departamentuak gai horri buruzko politika zehaztu eta aurrera eramateko eskatzen dion laguntza ematea.

d) Turismoa sustatu eta sektore turistikoa hobetzeko egokitzat jotzen dituen ekimenak aurkeztu eta neurriak proposatzea.

e) Foru Komunitateko administrazioak ematen dizkion bestelako ahalmen guztiak.

3. Nafarroako Turismo Kontseiluak turismoaren alorrean eskudun den departamentuaren ordezkari bat izanen du buru eta bertan ordezkaturik egonen dira Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa, partzuergo turistikoak, enpresa turistikoek elkartak, Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofiziala eta erregelamendu bidez ezartzen diren erakunde, elkarte edo entitateak ere.

Turismo Kontseilura, gonbidatuta, prestigio handiko profesionalak joaten ahalko dira, baldin eta haien ekarpenak garrantzitsuak izan badaitezke kontseiluaren eginkizunetarako.

4. Haren osaera, antolaketa eta funtzionamendua erregelamendu bidez ezarriko dira.

10. artikulua. Departamentu arteko Turismo Batzordea.

1. Departamentuen arteko Turismo Batzordea Foru Komunitateko administrazioak turismoa koordinatzeko duen organoa da.

2. Batzordeburua izanen da turismoaren alorrean eskumena duen kontseilaria eta bertan ordez-

katurik egonen dira Nafarroako Gobernuako Ekonomia eta Ogasun departamentua; Herrilan, Garraio eta Komunikazio departamentua; Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza departamentua; Hezkuntza eta Kultura departamentua; eta Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura departamentua. Gainera, aztertzen diren gaien arabera, beste departamentu batzuetako ordezkariak ere eskatzen ahalko zaie bertan ager daitezela.

3. Haren osaera, antolamendua eta funtzionamendua erregelamendu bidez ezarriko dira.

11. artikulua. Turismo Partzuergoak.

1. Turismo Partzuergoak toki-eremuan diharduten udal-entitateen eta enpresa pribatuen elkarlanerako eta koordinaziorako guneak dira. Nafarroako toki administrazioari buruzko Foru Legean xedaturikoaren arabera, nortasun juridiko berezko eta beregaina izanen dute eta partzuergoko toki entitateek turismoan dituzten eskumenak erabiliko dituzte, haiek esleitu badizkiete, hala nola:

a) Euren jarduera eremuko jarduera turistikoak sustatu, zabaldu eta bultzatzea. Halaber, eskualdeetako ekonomia dibertsifikatzeko elementu izatea, enplegua sortuz eta biztanleen bizibideari lagunduz, biztanleen errenta eta bizitzaren nahiz zerbitzuen maila hobetuz.

b) Baliabide turistikoaren gainean zerikusia izan dezaketen gizarte eragile guztiei arlo horretako informazioa eman eta sentsibilizatzea, batez ere bertako biztanleei eta toki-entitateei, eta espresuki ematen zaizkien baliabideen ustiapena zuzenean kudeatzea.

c) Turismoaren alorrean eskumena duen administrazioari sektorea hobekien garatzeko komendiaren proposamen eta gomendioak igortzea.

Foru lege honi dagokionez, eginkizun horiek garatzen dituzten partzuergoak joko dira turismo partzuergotzat.

2. Aurreko idatz-zatiak esanak esan, jarduera turistikoetan alorrean eskudun den departamentuarekin elkar lanean aritzeko, departamentu horrek erabakitzen ahalko du zer betebeharrak eta baldintza bete beharko dituzten partzuergoak.

III. TITULUA

Jarduera turistikoaren antolamendua

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

12. artikulua. Kontzeptuak.

Foru lege honetako kontzeptuak:

1. Baliabide turistikoak: Nafarroako errealitate fisiko, geografiko, sozial edo kulturaleko ondasun materiala edo era askotako agerpena, turistek etorrera erakar dezakeena.

Ikuspegi horretatik, turistek etorreratzat joko da pertsonak beren etxetik kanpora joan eta han egonaldia egitea.

2. Jarduera turistikoak: xede gisa duena baliabide turistikoak gozatu, aurkitu eta ezagutzeko aukera eskaintzea, haiei buruzko informazioa ematea eta haiek zaindu eta sustatzea, horretarako zenbait zerbitzu emanaz, hala nola ostaldea, mantenu edo sukaldaritza, aisia, argibideak, bitartekotza, ezagutarazte eta merkaturatzea, eta biltzar, mintzaldi eta antzeko ekitaldien antolaketa; halaber, Foru Komunitateko administrazioak horrela sailkatzen duen beste edozein jarduera.

3. Enpresa turistikoak: bere izenean, ohiko jarduera gisa eta irabazi asmoarekin, jarduera turistiko bat egin edo zerbitzu turistiko bat ematen duen pertsona fisiko edo juridikoa. Jarduera ohikoa dela ulertuko da edozein baliabideren bidez zerbitzu turistikoaren publizitatea egiten denean.

4. Enpresaz bestelako turismo entitatea: garen turistikoak edo zenbait jarduera turistiko bultzatzea xede duena, irabazi asmorik gabe.

5. Establezimendu turistikoak: unitate funtzional beregain bat osatzen duten ondasun higigarri eta higiezinen multzoa, titularrak zerbitzu turistiko bat egoki emateko antolatu eta prestatzen duena.

13. artikulua. Jarduera turistikoaren araubide juridikoa.

1. Jarduera turistikoak libreak dira. Muga bakarrik aplikatzekoak diren lege eta erregelamenduen ondoriozkoak dira.

2. Aurreko idatz-zatia gorabehera, enpresa eta establezimendu turistikoak edo enpresaz bestelako entitate turistikoak, jarduera hasi baino lehen, Nafarroako Turismo Erregistroan inskribaturik egon beharko dute eta bestelako erakundeek zein bere eskumenen arabera eskatzen ahal dizkieten lizentzia edo baimenak eduki.

3. Erregistroan sailkatu eta inskribatzeko kon-tuan harturiko baldintza eta betebeharrak nabarmen aldatuz gero, aldaketa hori bertan adierazi beharko da. Betiere, "nabarmenatzat" hartuko dira establezimendu turistikoetako postuen kopurua aldatzea, zerbitzuak gehitzea eta erabilera turistikoak edo titulartasuna aldatzea.

4. Inskripzioaren xede izan den jarduera elkarren segidan bi urtetik goiti utziz gero inskripzioa ofizioz indargabetuko da.

5. Aldez aurretik Nafarroako Turismo Erregistroan inskribatu beharra izan eta inskribatu gabe edo inskripzioa baliogabetuta zerbitzu turistikoak ematea edo edozein hedabideren bitartez haien publizitatea egitea jarduera klandestinitzat joko da.

6. Nafarroako Turismo Erregistroan inskribatu baino lehen, turismo administrazioak jarduera sailkatuko du, hala behar denean. Sailkapen horrek horretarako kontuan hartzen diren betebeharrak betetzen direino iraunen du eta ofizioz edo aldeak eskaturik berraztertzen ahalko da, bidezko diren izapidaketak egin ondoren. Ulertuko da inskribatzeko eskabideak onartu direla eskatzaileari ebazpenik jakinarazi gabe hiru hilabete pasatzen direnean, aurkezten direnetik aurrera.

7. Jarduera turistikoengatik ematen diren zerbitzuen prezioak libreak dira. Prezioen tarifak betiere erabiltzaileen eskura izanen dira eta establezimendu turistikoan ikusgai.

8. Establezimendu turistiko guztiak publikoak dira; edonor sartzan ahal da haietan. Muga bakarrik izanen dira haien izaera eta tamaina, indarra duten legeak eta, kasua bada, zerbitzu eta instalazioak erabiltzeko establezimenduko barne arauak.

Establezimendu turistiko publikoetan sartzeko askatasuna ezin izanen da mugatu jaiotza, arraza, sexu, erlijio, iritzi edo pertsonaren edo giza taldearen beste edozein gorabehera edo izaera kontuan hartzen duen bereizkeriazko inolako irizpideren arabera.

14. artikulua. Nafarroako Turismo Erregistroa.

1. Nafarroako Turismo Erregistroa erregistro publiko administratibo bat da. Haren xedea da inskribatzea establezimendu turistikoak, enpresa turistikoak, enpresaz bestelako entitate turistikoak eta bere jarduera turistikoagatik erregelamendu bidez zehazten den beste edozein establezimendu edo pertsona.

2. Enpresa eta establezimendu turistikoak ofizioz inskribatuko dira edo interesatuak eskaturik. Ulertuko da inskribatzeko eskabideak onartu direla aurkezten direnetik hiru hilabete pasatzen direnean, eskatzaileari horri buruzko ebazpenik jakinarazi ez bazaio.

3. Inskripzioa nahitaezkoa izanen da enpresa turistikoendako eta haien establezimenduendako, enpresaz bestelako entitate turistikoendako eta arauturik dauden jarduera turistikoendako. Gainerako kasuetan inskripzioa aukerakoa izanen da.

Betiere, Nafarroako Turismo Erregistroan inskribatzea nahitaezko baldintza izanen da turismoaren alorreko dirulaguntzak kobratu ahal izateko.

4. Erregelamendu bidez Erregistroaren antolamendu eta funtzionamenduaren arauak, inskripzioen prozedura eta edukia eta haiek kreditatzeko era ezarriko dira.

II. KAPITULUA

Ostatu turistikoaren jarduera

15. artikulua. Kontzeptua.

1. Ostatu turistikoa jendeari irekiriko establezimendua da, eskatzen duten erabiltzaile turistikoek aldi baterako ostatu zerbitzua ematen diena, diru truk, bestelako zerbitzu osagarriak emanda edo eman gabe.

2. Foru lege honetatik kanpo gelditzen dira:

a) Entitate pribatuek beren kideek ez bestek erabiltzeko zerbitzua ematen duten ostatuak.

b) Eskola, kultura, ingurumen, erlijio edo kirolaren alorreko jarduera nagusien menpeko ostatu osagarria, turismorako merkaturatzen ez bada.

c) Erakunde ofizial, ongizate, laguntza edo lan alorretarako ostatuak edo administrazioak gazteendako edo zaharrendako programen barruan darabiltzanak, berariazko arauak izanen baitituzte.

d) Ostatu turistikoen mota bakoitzean espresuki baztertzen direnak.

3. Ostatu turistikoa ustiategi bakarrek irizpideari jarraituz antolatuko da, halako moldez non enpresa-titulartasun bakarrekoa izanen den jarduera, establezimendu bakoitzean edo ostatu multzo bakoitzean, eraikin edo horren zati homogeneo bakoitzean; betiere, foru lege honetan aurreikusten den ostatu motaren bati dagokionean.

16. artikulua. Motak, kategoriak eta bereizgarriak.

1. Ostatu turistikoko establezimenduak honela sailkatzen dira:

a) Hotelak.

b) Kanpaleku turistikoak.

c) Turismoko aterpetxeak.

d) Landa-etxeak.

e) Turismoko apartamentuak.

f) Arau berezien xede den beste edozein.

2. Erregelamendu bidez ostatuak kategorien arabera sailkatuko dira. Sailkapen horretan zerbi-

tzu eta instalazioen kalitatea baloratuko dira. Betiere, honako hauek hartuko dira aintzakotzat:

a) Establezimendua dagoeneko eraikinaren edo eremuaren kokagunea eta beste inguruabarrak.

b) Logelen, bainugelen eta bezero guztiek erabiltzeko instalazioen egoera eta hornidura.

c) Ezgaituendako zerbitzuak.

d) Zerbitzu osagarriak.

e) Eskaintzaren kalitatea, oro har, instalazioei eta zerbitzuei dagokienez.

f) Establezimendua zaindu, mantendu eta hobetzeko eginiko ahaleginak eta ingurumena zaindu, energia aurreztu eta energia berriztagarriak erabiltzekoak ere bai.

3. Arrazoiak emanda, turismo arloko administrazioak establezimendu bat salbuesten ahalko du foru lege honetan edo hau garatzen duten erregelamenduetan ezartzen diren gutxieneko betebeharrak teknikoetakoren batetik, inskribatu edo kategoriatan sartzekoan, gertatzen diren inguruabarrarengatik ez betetze hori instalazioen eta egin ditzakeen hobekuntzen orotariko balorazioarekin orekatzen bada.

4. Ostaturako establezimendu guztietan nahitaezkoa izanen da atari nagusiaren ondoan erregelamendu bidez xedatzen denaren arabera plaka normaldu bat erakustea, non establezimendutaren eta haren sailkapenaren bereizgarria agertuko baita.

5. Ostaturako establezimenduek egiten duten publizitatean eta fakturretan haien kategoriak agertu beharko du.

17. artikulua. Ostaturako establezimenduen kalitate baldintzak.

1. Ostaturako establezimendu guztiek hirigintza, eraikuntza, etxebizitzaren, instalazio, osasun, kontsumo, segurtasun, higiene eta ingurumenaren babesaren alorretan indarra duten arauak bete beharko dituzte.

2. Turismorako establezimendu guztiak behar-tuak daude beren instalazioak ongi zaintzera eta sailkapen eta erregistratutako gutxieneko baldintzak mantentzera.

3. Kategorien arabera sailkapenaren osagarri, erregelamendu bidez kalitatearen arabera sailkapen sistema bat ezartzen ahalko da, instalazio, zerbitzu eta langileen gaitasunaren kalitatea baloratu eta frogatzen dituen.

18. artikulua. Hotelen arloko establezimenduak.

1. Hotelen arloko establezimenduak mota hauetakoak izan daitezke:

a) Hotela: establezimendu mota honek eraikin oso bat edo haren zati bereizi bat hartu behar du. Sarrerak, eskailerak eta, behar izanez gero, igogailuak eduki beharko ditu, bezeroek bereizirik eta bakarrik erabiltzekoak, eta erregelamendu bidez ezartzen diren betebeharrak teknikoak bete.

Salbuespen gisa eraikin oso batzuk hartzen dituzten hotelak ere onartuko dira, multzo arkitektoniko homogeneo bat osatzen badute.

b) Landa hotela: landa ingurunean dagoena, balio arkitektoniko bereziko ondasun higiezin batean kokatua, edo eskualdeko arkitektura tradizionalaren arabera dena eta erregelamendu bidez ezartzen diren ezaugarri eta betebeharrak teknikoak betetzen dituen.

c) Hotel-apartamentua: bere egituragatik eta bere zerbitzuengatik ostatu unitatean bertan elikagaiak gorde, prestatu eta kontsumitzeko egoki diren instalazioak dauzkan establezimendua, erregelamendu bidez ezartzen diren betebeharrak teknikoak betetzen dituen.

d) Hostala: hotelen motakoa ez bada ere, erregelamendu bidez ezartzen diren betebeharrak teknikoak betetzen dituen establezimendua.

e) Pentsioa: hotelen edo hostalen motakoa ez bada ere, erregelamendu bidez ezartzen diren betebeharrak teknikoak betetzen dituen establezimendua.

2. Erregelamendu bidez ezartzen denean, hotelen arloko establezimenduari espezializazio bat aitortzen ahalko zaie, ezaugarrien, egoeraren, instalazio osagarrien eta eskaintzen dituzten zerbitzuen arabera, baita establezimenduaren eskari motaren arabera ere.

19. artikulua. Turismorako kanpalekuak.

1. Kanpaleku turistikoa da ongi mugaturiko lurra, egokitua eta behar diren instalazio eta zerbitzuak dauzkana, pertsonen aire zabalean bizitzeko toki bat aldi baterako emateko erabiltzen dena, diru truk, oportetarako edo turismorako, betiere kanpadendak, karabanak edo toki batetik bestera eramanez daitezkeen antzeko tresnak erabilita.

2. Kanpaldi libreak, gazteen kanpaldiek eta turismorako kanpalekuetatik kanpo egiten diren kanpaldiek berariazko arauak izanen dituzte.

3. Artikulu honetako lehenbiziko idatz-zatian xedatutakoa gorabehera, turismoaren alorrean

eskumena duen organoak baimena ematen ahal du, eremuak ehunekoa gainditzen ez duenean eta erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzak betetzen dituztenean, osagai finko hauek paratzeko, erabiltzaileen edo langileen taldekako beharrak betetzeko ezarriak:

a) Ostaturako erabiltzen direnak, aurrefabrikatuak, zurezkoak edo antzekoak, bungalow motakoak, kanpalekuaren titularrak ustiatzen baditu.

b) Askorentzako logeletan ostatu emateko erabiltzen diren instalazioak.

4. Erregelamendu bidez zehaztuko dira turismorako kanpalekuei eta haien kategoriei eskatzen ahal zaizkien betebeharrak teknikoak.

20. artikulua. Turismorako aterpetxeak.

1. Turismorako aterpetxeak dira publikoari ohiko jarduera gisa, lanbidez eta diru truk askorentzako logeletan ostatu zerbitzua eskaintzen dioten establezimenduak, inguruneari loturiko jarduera batekin batera.

2. Ez dira turismorako aterpetxeak:

a) Turismorako kanpalekuetan askorentzako logeletan ostatu emateko erabiltzen diren instalazioak.

b) Askorentzako logeletako ostatuak, talde edo erakunde bateko kidea izatea bada haiek erabiltzeko baldintza.

c) Askorentzako logeletan diru ordainik gabe ematen denean ostatu, edo pagatzen den dirua dohaintza bada edo ostatu ematen duenarendako gastuen ordain hutsa bada.

d) Gazteen aterpetxeen sareko gazteen aterpetxeak, berariazko araudia izanzen baitute.

3. Erregelamendu bidez zehaztuko dira turismorako aterpetxeei eta haien kategoriei eskatzen ahal zaizkien betebeharrak.

21. artikulua. Landa-etxeak.

1. Landa-etxeak dira ostatu ematen duten establezimenduak, mantenua barne edo ez, diru truk, eraikina landa ingurunean badago eta haren ezaugarri estetikoak eskualdeko arkitektura tradizionalarenak badira.

2. Erregelamendu bidez zehaztuko dira landa-etxeei eskatzen ahal zaizkien betebeharrak teknikoak eta gutxieneko zerbitzuak, bai eta mota eta kategoriak ere.

22. artikulua. Turismorako apartamentuak.

1. Turismorako apartamentuak dira etxebizitzera-erakinak, etxeak, villak, txaletak edo antzeko-

ak edo haien multzoak, diru truk eta egun, aste edo hilabeteka ostatu ematen dutenak, elikagaiak eta zerbitzuak zaindu, prestatu eta jateko instalazio eta ekipo egokiak barne, norbaitek bertan berehala ostatu hartzeko moduan, erregelamendu bidez ezartzen diren betebeharrak betetzen badituzte.

2. Betiere jendearen arretarako bulego bat eduki beharko dute, langilez behar bezala hornitua.

III. KAPITULUA **Sukaldaritza**

23. artikulua. Kontzeptua.

1. Sukaldaritza establezimenduak dira ohiko jarduera gisa, lanbidez eta diru truk jendearendako instalazio finko edo mugikorretatik janariak eta edariak ematen dituztenak, bertan jan-edateko.

2. Foru lege honetatik kanpo gelditzen da taldekako sukaldaritza soziala; alegia, sukaldaritza zerbitzuak ematea laguntza, erakunde, eskola, unibertsitate, gizarte eta lan alorretako jantokietan, eta talde batzuekiko eta ez erabiltzaile guztiendako direnetan.

24. artikulua. Motak eta sailkapena.

1. Sukaldaritza establezimenduak mota hauek izan daitezke:

a) Jatetxeak.

b) Kafetegiak.

c) Beraien berezitasunak direla-eta, erregelamendu bidez ezartzen diren tabernak.

d) Erregelamendu bidez ezartzen diren bestelako establezimenduak.

2. Jatetxeak dira sukaldaritza zerbitzuak ematen dituzten establezimendu batzuk, non erregelamenduz ezarritako gainerako baldintzak betetzeaz gain, janariak ordutegi zehatz batean kontsumitzen baitira, eta, batez ere, bereizitako jangeletan.

3. Kafetegiak dira sukaldaritza zerbitzua preskakuntza erraz eta lasterreko plater bakun edo konbinatuen bidez ematen dutenak, barran eta mahaian, irekita dauden denbora gutzian.

4. Sukaldaritza enpresetako instalazio eta zerbitzuen ezaugarriak, espezialitateak, zerbitzu mota eta kalitate betebeharrak erregelamendu bidez ezarritako dira mota guztietarako, bai eta kategorien arabera sailkapena ere.

IV. KAPITULUA Bitartekotza turistikoa

25. artikulua. Kontzeptua eta motak.

1. Bitartekotza turistikoa zerbitzu turistikoa erabiltzailearen eta eskaintzailearen artekoa da, baita produktu turistikoa antolamendua ere.

2. Hona hemen bitartekotza turistikoko enpresak:

a) Bidai agentziak.

b) Enpresa turistikoen elkarteak, haien helburua enpresa elkartuen eskaintzak batera merkaturatzea bada.

c) Erreserba bulegoak.

d) Biltzar, azoka eta bileren antolamendu profesionala xede dutenak.

e) Zerbitzu turistikoen merkaturatzea, bitartekotza eta antolamendua eta turismo argibideak xede dituztenak, bidai agentziaren berezko xedea ez direnean eta erregelamendu bidez halakotzat hartzen direnean.

26. artikulua. Bidai agentziak.

1. Bidai agentziak dira modu profesional eta komertzialean zerbitzu turistikoen bitartekotza eta antolamenduan baizik ez diharduten enpresak.

2. Bidai agentziaren legezko izaera eta izendapen hori aurreko idatz-zatian aipatzen diren enpresek baizik ez dute izanen. "Bidaia" eta "bidaiak" hitzak haien jardueren izenburu edo azpi-izenburu osotako edo haien zatitako erabiltzen ahalko dituzte legez bidai agentziak direnek bakarrik.

3. Bidai agentziak, haien jardueren arabera, hiru motatakoak izan daitezke:

a) Handizkakoak: txikikazko agentziei eskaintzeko xedez era guztietako zerbitzu eta zerbitzu-sorta turistikoa proiektatu, prestatu eta antolatu dituztenak. Beren produktuak ezin dizkiote zuzenean eskaini erabiltzaileari edo turistari.

b) Txikizkakoak: handizkako agentzien produktua merkaturatu eta zuzenean erabiltzaile edo kontsumitzaileari saltzen dizkietenak edo erabiltzaileendako zuzenean zerbitzu eta zerbitzu-sorta turistikoa proiektatu, prestatu, antolatu eta/edo saltzen dituztenak. Beren produktuak ezin dizkiete eskaini beste agentziei.

c) Handizkako-txikizkakoak: aurreko bi taldeen jarduerak egin ditzaketanak.

4. Bidai agentzien titulu-lizentzia eskuratzeko betebeharrak erregelamendu bidez ezarriko dira.

5. Titulu-lizentziarik gabe publikoari bidaiak eskaintzea eta bidai agentzien berezko merkataritza jarduerak egin edo iragartzea intrusismo profesionaltzat joko da, salbu eta kapitulu honetan aipatzen diren gainerako enpresak izanez gero.

27. artikulua. Bitartekotzarako bestelako enpresak.

1. Gainerako bitartekotza enpresek xede bakartzat izanen dute enpresa turistikoen eskaintzak batera merkaturatzea. Erabiltzaile turistikoa Nafarroako Foru Komunitatean hartu eta lurralde horretan zerbitzu turistikoa eskaini baizik ez dute egingen.

2. Enpresa hauei eskaturiko betebeharrak erregelamendu bidez zehaztuko dira.

V. KAPITULUA Jarduera turistikoa osagarriak

28. artikulua. Kontzeptua eta motak.

1. Jarduera turistikoa osagarriak dira diru truk modu profesional eta ohikoan bezeroen aisialdi eta atsedenerako zerbitzuak eskaintzen dituztenak, direla kulturakoak, jolasak, kirolak, naturakoak edo antzekoak.

2. Enpresa hauek bete beharko dituzten baldintzak erregelamendu bidez zehaztuko dira.

VI. KAPITULUA Lanbide turistikoa

29. artikulua. Lanbide turistikoa.

Foru lege honi dagokionez, lanbide turistikoa dira gaikuntza berezi bat behar dutenak, enpresa turistikoa berariazko zerbitzuak ohiko moduan eta diru truk ematekoak, baita argibideak, sorospena, laguntza, entretenimendua eta itzulpenak egitekoak ere, eta titulu, baldintza eta betebeharraren arabera erregelamendu bidez ezartzen direnak ere bai.

IV. TITULUA Turismoaren alorreko eskubide eta betebeharrak

30. artikulua. Erabiltzaile turistikoen eskubide eta betebeharrak.

1. Erabiltzaile turistikoa dira zerbitzu turistikoren baten azkeneko hartzaileak diren pertsona fisiko edo juridikoak.

2. Zerbitzu turistikoen erabiltzaileek foru lege honetan aipatzen diren eskubide eta betebeharrak izanen dituzte, kontsumitzaile eta erabiltzaileak diren aldetik dagozkien eskubideak eta bestelako arauak aitortu edo ezartzen dizkieten eskubide edo betebeharrak galarazi gabe.

31. artikulua. Erabiltzaile turistikoen eskubideak.

Erabiltzaile turistikoek berariazko eskubide hauek izanen dituzte:

a) Eskaintzen zaizkien ondasun eta zerbitzuen gainean informazio egiazkoa, osoa eta zehatza kontratua izenpetu aitzin hartzeko eskubidea. Informazio hori ematen duten enpresa eta establezimendu turistikoendako loteslea izanen da.

b) Ondasun eta zerbitzuen kalitatea kontratua- ren araberakoa izateko eskubidea.

c) Beste alde kontratatzailearengandik kontratuko baldintzak frogatzen dituzten agiriak lortzeko eskubidea, baita legeen arabera eginiko fakturak ere.

d) Zerbitzu turistikoak erabiltzerakoan arraza, sorterri, sexu, erlijio, iritzi edo norberaren edo giza-taldearen beste edozein gorabeheragatik bereizkeriarik ez jasateko eskubidea.

e) Hartzen dituen zerbitzu turistikoetan bere eta bere ondasunen segurtasuna bermaturik edukitzeko eskubidea, indarra duten erregelamenduetan xedatu bezala.

f) Kexak eta erreklamazioak aurkezteko eskubidea.

g) Kontsumoko Arbitraje Batzordeari helegiteak aurkezteko eskubidea.

32. artikulua. Erabiltzaile turistikoen betebeharrak.

Erabiltzaile turistikoek berariazko betebeharrak izanen dituzte:

a) Nafarroako Foru Komunitateko ingurune, gizarte eta kulturarekiko begirunea izatea.

b) Bisitatzeko dituzten tokietako eta zerbitzuak ematen dizkieten enpresa eta establezimenduen berezko agindu eta arauak betetzea, legeen kontrakoak ez badira.

c) Establezimendu turistikoak ongi erabiltzeko higie-ne eta bizikidetzarako emaniko arauak betetzea eta beste erabiltzaile turistikoak, enpresa eta establezimendu turistikoetako langileak, establezimenduak berak, eta erabiltzen dituzten instalazio eta jabetzak errespetatzea.

d) Kontraturiko zerbitzuen prezioa pagatzea. Kexa edo erreklamazio bat aurkezteak ez du inoiz ere salbuetsiko ordaindu beharretik.

e) Eskainiriko zerbitzuak erabiltzeko arauak errespetatzea.

33. artikulua. Enpresa turistikoen eskubideak.

Enpresa turistikoek eskubide hauek izanen dituzte:

a) Bere establezimenduen instalazio, ezaugarri eta berariazko eskaintzari buruzko argibideak Nafarroako Foru Komunitateko turismo administrazioaren katalogo, direktorio, gidaliburu eta informazio sistemetan agertzeko eskubidea, administrazio hark ezartzen dituen baldintzetan.

b) Foru Komunitateko administrazioak susta-pen turistikorako egiten dituen ekintzetan parte hartzeko eskubidea, hark ezartzen dituen baldintzetan.

c) Bere ekitaldiak egin eta bere zerbitzuak eskaintzeko behar den inskripzioa turismo administrazioetik lortzeko eskubidea, foru lege honetan ezartzen diren kasuetan.

d) Sektorea garatzeko turismo administrazioak ezarritako laguntzak eskatzeko eskubidea.

e) Bere bidez edo sektoreko elkar-teen bidez, Nafarroako Foru Komunitatean turismoa garatzeko edozein ekitaldi proposatzeko eskubidea.

f) Eskaintzen dituzten zerbitzuak erabiltzeko arauak emateko eskubidea, indarra duten legeen kontra jotzen ez badute.

34. artikulua. Enpresa turistikoen betebeharrak.

Enpresa turistikoek foru lege honetan eta hau garatzen duten arauetan ezartzen diren betebeharrak izanen dituzte; partikularki, ondokoak:

a) Bezero edo erabiltzaileei eskaintzen zaizkien zerbitzuen edukia, baldintzak eta prezioa aurretiaz jakinaraztea.

b) Kontratuko baldintzen arabera, zerbitzuak kalitaterik handienaz ematea eta ezarri edo itunduriko prezioen arabera fakturatzea.

c) Zerbitzuen prezioak eta sailkapenaren bereizgarria ikus daitekeen tokian jartzea.

d) Arraza, sorterri, sexu, erlijio, iritzi edo norberaren edo giza-taldearen beste edozein gorabeheragatik bereizkeriaz ez tratatzea erabiltzaileak eta ordenamendu juridikoan ezarri bezala ezgaituei establezimenduetan sartzeko erraztasunak ematea.

e) Instalazioak eta zerbitzuak funtzionatu eta erabiltzeko ongi edukitzea eta erabiltzaileari tratu zuzen eta egokia ematea.

f) Erabiltzaileari kexak eta erreklamazioak aurkezteko behar dituen agiriak ematea, hark hala eskatuz gero.

g) Administrazio publikoei beren eskumenak erabiltzeko behar dituzten argibide eta agiriak ematea.

h) Jarduera, establezimendua edo enpresa ukitzen duen beste edozein legetan ezartzen diren betebeharrak betetzea.

i) Beren erantzukizunpeko balizko arriskuen aurrean, erantzukizun zibila bermatuko duen poliza kontratatzea, formari eta zenbatekoari dagokionez ezartzen den moduan.

V. TITULUA

Baliabide turistikoak

35. artikulua. Definizioa.

Baliabide turistikoak dira foru lege honetako 12.1 artikuluan orokorki definitzen direnak. Partikularki, baliabide turistikoak dira Nafarroako Foru Komunitateko ondare natural, geografiko eta kulturalaren osagaiak, haren ohitura, aztura eta tradizioak, ostatu eta sukaldaritzarako azpiegiturak eta enpresa turistikoaren beste edozein ekarpen.

36. artikulua. Baliabide turistikoaren antolamendua.

1. Turismo administrazioak, baliabide turistikoak ordenatzeko plan bat eginen du, helburuak, beharrezkoak eta lehentasunak zehazteko xedearrekin. Planak arreta berezia paratuko dio herritarren bizitza kalitatea hobetzeari eta kultura ondarearen eta ingurumenaren babesari eta kontserbazioari.

2. Horretarako, Foru Komunitateko administrazioak, bestelako administrazioekin eta entitate publiko eta pribatuekin elkarlanean, behar diren azterlan, estatistika, inbentario eta bestelako baliabideak prestatuko ditu.

37. artikulua. Natur baliabide turistikoak.

1. Foru administrazioiko beste departamentuen eskumenak eta haiekiko derrigorrezko koordinazioa deusetan galarazi gabe, turismoaren alorrean eskudun den departamentuak natur baliabide turistikoak ingurumenarekiko begirunea eta jasangarritasuna irizpide hartuta sustatuko ditu.

2. Foru Komunitateko administrazioa eta toki entitateak elkarrekin koordinaturik arituko dira natur baliabide turistikoak zentzuz erabiltzeko

moduan eskaintzearen, irizpide berak erabilita, turismoarekin batera ingurumenarekiko erabateko begirunea ahalbidetzeko.

3. Nafarroako foru administrazioiko beste departamentu batzuetako eskumenak eta hauekin beharrezkoa den koordinazioa deusetan galarazi gabe, turismo alorreko eskumenak dituen departamentuak informazio seinaleztapen bateratua gauzatzeko programa eginen du. Programa honek, inguruarekiko errespetua, informazio zuzentasuna eta argitasuna irizpide gisa hartuz, turismo baliabide eta zerbitzuen erabilpen zentzuzkoa sustatuko du.

38. artikulua. Kultur baliabide turistikoak.

Foru Komunitateko beste departamentuen eskumenak eta haiekiko derrigorrezko koordinazioa galarazi gabe, turismoaren alorrean eskudun den departamentuak sustatuko du kultur ondasunak baliabide turistikoak erabil daitezela, betiere haien babes araubidea bermaturik.

39. artikulua. Baliabide turistikoaren babes berezia.

1. Baliabide turistikoaren kalitatea berariaz babestu eta luzaz modu jasangarrian mantendu ahal izateko, Foru Komunitateko administrazioak eremu batzuk asetzat edo trinkotasun bereziko zat deklaratu eta eremu horretako jarduera turistikoak antolatu ahal izango ditu.

2. Deklarazio hori ukituriko udalek txostena eman eta gero eginen da, eta berarekin ekarriko du eremuko jarduera turistikoak antolatzeko plan bat onestea. Plan horrek jarduera horiek mugatuko ditu eta baliabide turistikoak kalte egitea saihestuko du, bai eta baliabide horietara behar bezalako kalitate bermerik gabe iristea ere.

VI. TITULUA

Turismoa ezagutarazi eta sustatzea

40. artikulua. Eskumenak.

1. Nafarroa helmuga turistiko gisa ezagutarazi eta sustatzea Foru Komunitateko administrazioari dagokio, Estatuko administrazio orokorraren eta toki entitateen eskumenak galarazi gabe.

2. Eskumen horiek erabiliko ditu esleiturik dauzkan Foru Komunitateko administrazioiko departamentuak.

3. Jarduera turistikoak ezagutaraztean printzipio hau hartuko da kontuan: Nafarroa, bere osotasunean, helmuga turistiko bakarra dela eta, beraz, Nafarroako Foru Komunitatearen identifikazioak betiere agertu beharko duela.

4. Aurreko idatz-zatian xedaturikoa deusetan galarazi gabe, helmuga turistikoko berariazko kanpainak sustatzen ahalko ditu, non Nafarroako Foru Komunitateko osagai edo eskualde berezi bat nabarmendu edo zehaztuko baita.

41. artikulua. Turismorako ezagutaraztea.

1. Turismorako ezagutarazteari dagokionez, Foru Komunitateko administrazioak Nafarroaren irudia helmuga turistikoko gisa indartu eta ezagutarazteko egoki diren neurriak hartuko ditu.

2. Hona hemen haren egitekoak, lankidetzaren publiko eta pribatuaren barruan, Estatuaren esku-menak galarazi gabe:

a) Nafarroa turismorako ezagutarazteko programa eta kanpainak taxutu eta egitea.

b) Nafarroa ezagutarazi eta hari buruzko informazioa emateko argitalpen turistikoko argitaraztea.

c) Gaikako turismoa eta zenbait produktu edo helmuga turistikoko xede dituzten ezagutarazpen plan eta programak garatzea.

d) Kalitateko marka eta elkarteak indartu eta sustatzeko ekintzak bultzatzea.

e) Turismo argibideetarako sistema eragingarriak garatzea.

42. artikulua. Sustapena.

1. Foru Komunitateko administrazioak Nafarroako sektore turistikoa sustatuko du, betiere printzipio gisa harturik esleituriko baliabide publikoen eragingarritasuna eta kalitate turistikorik handiena lortzea.

2. Horretarako, turismoaren alorrean eskudunen departamentuak dirulaguntzak ematen ahalko ditu jarduera turistikoen pizgarri izan daitezen, bereziki enpresa eta establezimendu turistikoen kalitatearena.

3. Dirulaguntza haiek Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen dirulaguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko araubide orokorraren menpe egon diren.

4. Foru Komunitateko administrazioak, Nafarroako Turismo Kontseiluarekin eta jarduera turistikoen garapenean eta sustapenean zeresana duten gainerako eragileekin bat, urte anitzeko ekintza plana egiten du. Plan horrek bertan aipatzen den denbora-tartean jarraitu beharreko estrategia ezarriko du, bai eskualdeetan beharrezkoak diren ekipamendu eta zerbitzuen alorreko inber-

tsioei dagokionez, baita ezagutarazpen eta komunikazio alorreko jarduerari dagokionez ere.

5. Planak gutxienez ondokoak jasoko ditu:

a) Eskaintza turistikoen eta dituen defiziten azterlana.

b) Oinarrizko baliabide turistikoen inbentarioa.

c) Baliabide turistikoen oinarrizko ezaugarriak.

d) Eskariaren azterketa eta gerta daitekeen bilakaeraren aurreikuspenak.

e) Turismoaren eraginak ebaluatzeko irizpideak.

f) Udalerri turistikoen eta turismorako interes-guneen zerrenda.

g) Turismoari dagokionez aseak dauden eremuak.

h) Turismoaren kalitatea eta lehiakortasuna hobetzeko neurriak.

i) Turismo-baliabideak sustatzeko, babesteko eta seinalezatzeko interesgarri jotzen diren azterlanak.

43. artikulua. Argibide turistikokoak.

1. Erakunde ofizialek Nafarroako Foru Komunitateari buruz edozein hedabidetan ematen dituzten argibide turistikokoak foru lege honetako 4. artikuluan xedaturiko printzipioei jarraituko zaizkie eta komunikazioaren egiazkotasuna, homogeneotasuna eta eragingarritasuna izanen dituzte irizpide.

2. Udalen autonomia galarazi gabe, Foru Komunitateko administrazioak beharrezkoak diren tresnak sortuko ditu argibide turistikoen alorrean ekitaldi koordinatuak egiteko, eta alor honetan toki entitateei behar dituzten laguntzak emanen dizkie, Nafarroako argibide turistikoen sistema sendotzeko, betiere zerbitzu-ematearen homogeneotasuna, jarduera adierazten duen irudiaren ezaugarritasuna eta informazio-euskarrien modernizazioa irizpide.

44. artikulua. Dinamizazio planak eta helmugen kalitatekoak.

1. Turismoaren alorrean eskumena duen Foru Komunitateko administrazioaren departamentutik Nafarroako eskualdeen dinamizazio turistikoko planak bultzatuko dira.

2. Horrekin batera, helmuga turistikotarako kalitate planak sustatuko dira eta kalitate turistikoko gutunak sortzeko bultzada emanen zaio.

3. Foru Komunitateko administrazioak eskualde batean turismoari dagokionez lehentasunez

jarduteko sustapen bereziko plan edo neurriak onartzen ahalko ditu, bertako ekonomia eta enpleguaren egoera berezia eta eskualdearen balio turistikoak kontuan hartuta.

45. artikulua. Sektore turistikoaren profesionalizazioa.

Foru Komunitateko administrazioak sektore turistikoko giza baliabideen profesionalizazioa sustatuko du. Horretarako prestakuntza planak bultzatuko ditu, bai integralak, bai sektorekakoak.

46. artikulua. Elkartegintzaren sustapena.

Foru Komunitateko administrazioak sektore turistikoaren barruan elkartegintza sustatuko du, bai esparru publikoan bai pribatuan, bertako ahalginak bildu eta jarduketak koordinatzeko.

VII. TITULUA Diziplina turistikoa

I. KAPITULUA Ikuskapen turistikoa

47. artikulua. Turismoaren ikuskapena.

Foru Komunitateko administrazioan turismoaren alorrean eskudun den departamentuari dago-kio turismoari buruzko arautegia betearazteko ikuskapen lanak egitea.

48. artikulua. Eginkizunak.

Turismoaren alorrean eskudun den departamentuaren ikuskapen zerbitzuek eginkizun hauek izanen dituzte:

a) Turismoaren alorrean indarra duten xedepena betetzen direla zaindu eta egiaztatzea eta behar diren txostenak egitea.

b) Erabiltzaileen erreklamazio eta salaketen xede diren gertaerak egiaztatu, azpiegitura turistikoaren betekizunei buruz informatu eta dirulaguntzak jaso dituzten inbertsioak burutu direla egiaztatzea.

c) Instalazio eta zerbitzu turistikoaren kalitatea kontrolatzea, haien baldintzak begiratzuz.

d) Lege edo erregelamenduen bidez esleitzen zaizkien beste ikuskapen eginkizunak.

49. artikulua. Ikuskapen turistikoko zerbitzuak.

1. Ikuskapen turistikoko zerbitzuetako langileak, beren eginkizunetan dihardutenean, agintaritzat joko dira eta indarra duten arauak agintariei ematen dizkieten babes eta ahalmenak izanen dituzte. Beren eginkizunak hobeki egiteko beharrezkotzat jotzen dutenean, Foru Komunitateko

administrazioiko edo beste administrazio eta erakunde publikoetako langile eta zerbitzuen lankidetzaren eskatzen ahalko dute.

2. Ikuskatzaileek kreditazio bat izanen dute, beren eginkizunetan jardutean erakutsi beharko dutena.

3. Ikuskapena betiere konfidentziala izanen da. Ikuskatzaileek isiltasun profesionalaren betebeharrak zorrozki bete beharko dute.

50. artikulua. Lankidetzaren betebeharra.

1. Enpresa eta jarduera turistikoaren titularrek turismo ikuskapeneko zerbitzuko langileei, beren eginkizunetan dihardutenean, jarduera turistikoari loturiko bulego, instalazio, agiri, liburu eta erregistroak eskuratzen eta aztertzen utzi beharko diete. Haien ordezkariak eta haien menpekoak betebeharrak bera izanen dute, establezimenduak edo jarduera turistikoaz arduratzen badira.

2. Ikuskatzaileek, bere eginkizunetan dihardutela beharrezkotzat jotzen badute, interesatuei eskatzen ahalko diete, arrazoiak emanda, bere egoitzan ager daitezela, horretarako deian aipatzen den konturako.

3. Turismoaren alorrean eskudun den departamentuak baliabideak ezarriko ditu eginiko ikuspegiak eta haien emaitzak behar bezala kontrolatu eta ezagutzeko.

4. Ikuskapen zerbitzuek beren eginkizunetan aritzeko beharrezkotzat jotzen dituzten argibide guztiak eskatzen ahalko dizkiete erakunde ofizialei, lanbide erakundeei, sindikatuak eta kontsumitzaile elkarteak.

51. artikulua. Ikuskapeneko aktak.

1. Ikuskaldi bakoitzean, ikuskatzaileak akta bat egin beharko du, haren emaitza biltzen duena.

2. Aktak honelakoak izanen dira:

a) Turismoari buruzko arauak betetzen direla adieraztekoa.

b) Ikuskapenari eragozpenak jarri zaizkiola adieraztekoa.

c) Ohartaraztekoak, erraz betetzen ahal diren betebeharrak ez betetzeagatik, eta betiere ez betetze horien ondorioz erabiltzaileendako kalterik sortzen ez bada.

d) Turismoari buruzko arauak hauts ditzaketen gertaerak adieraztekoa.

3. Akta izenpetu beharko dute ikuskapena egin duen ikuskatzaileak eta establezimendu edo jarduera turistikoaren titularrak edo honen legezko

ordezkariak eta, halakorik ezean, une horretan dagoen arduradunak, zeinak kopia bat gordeko baitu. Izenpe horrek frogatuko du aktaren eta haren edukiaren berri duela, baina ez du esan nahi ados dagoenik. Pertsona horiek akta izenpetu nahi ez badute, ikuskatzaileak halaxe adierazi beharko du aktan eta zergatiak ere bai, eginbide batez.

4. Ikuskapen zerbitzuek beren eskumenetan dihardutela egiten dituzten aktetan agertzen diren gertaerak egiazkotzat joko dira, kontrakoa frogatu ezik.

II. KAPITULUA Zehapen araubidea

1. ATALA Arau-hausteak

52. artikulua. Arau-hauste administratiboak.

1. Turismoaren alorreko arau-hauste administratiboak dira foru lege honetan tipifikatzen diren egite edo ez-egiteak.

2. Turismoaren alorreko arau-hauste administratiboak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

3. Foru lege honetan aipatzen diren arau-hausteak honelaxe preskribitutako dira: oso larriak hiru urtera, larriak bi urtera eta arinak sei hilabetera.

Arau-hausteez preskribitzeko epea araua hausten den egunetik zenbatzen hasiko da.

4. Etengabeko jarduera baten ondoriozko arau-hausteetan, preskribitzeko epea hasiko da jarduera arau-hauslea bukatzen den egunean edo bestela araua hausten duen azkeneko egintza egiten denean.

5. Preskripzioa etenen da zehapen espediente interesatuari jakinarazita irekitzean.

53. artikulua. Arau-hauste arinak.

Hona hemen arau-hauste arinak:

a) Kontraturiko zerbitzuak haien izaeraren eta hitzarturiko baldintza eta zehaztapenen arabera ez egitea.

b) Establezimendu turistikoetako lokal, instalazio, altzari eta tresnen aurkezpen eta funtzionamendu baldintzetan akatsak izatea.

c) Erabiltzaileak ongi ez tratatzea.

d) Bezeroari prezioaren parte bat ezkutatzea, eskatu ez dituen edo adierazi ez diren prestazioak emanez.

e) Kontratatu ez diren zerbitzu edo ondasunak erabili edo kontsumitzera behartzea, edo eskaini ez diren baldintzetan.

f) Turismoaren alorrean eskudun den administrazioari establezimenduaren titulartasunaren aldaketak edo turismoari buruzko arautegiak eskatzen dituen argibideak ez jakinaraztea.

g) Enpresa, instalazio edo zerbitzuaren araubide eta funtzionamendu egokirako eta erabiltzailea babesteko berme gisa ezarritako kontratu, agiri, faktura, argibide edo erregistroei buruzko arauak, nahitaez bete beharrekoak, ez betetzea.

h) Kontratua bukatutzat emateko edo egin beharreko zerbitzuak bertan behera uzteko arauak ez betetzea.

i) Erreklamazio orririk ez edukitzea edo eduki bai baina eskatuz gero horrelakorik ez ematea.

j) Turismo enpresarekiko harremanaren baldintzak frogatzen dituzten agiri guztiak eta, betiere, legez eginiko fakturak, bezeroari ez ematea.

k) Erregelamendu bidez ezarritako establezimenduetan nahitaez erakutsi beharreko bereizgarriak ez edukitzea edo, erakutsita ere, eskaturiko betebeharrak haiek ez betetzea.

l) Produktu eta zerbitzuei eta haien prezioei buruzko publizitatea arautzen duten xedapenak ez betetzea.

m) Zerbitzu batzuk arautu ditzaketen agindu berezien publizitaterik eza.

n) Establezimenduaren egitura, tamaina edo ezaugarriak administrazioari jakinarazi gabe aldatzea, jakinaraztea beharrezkoa denean.

ñ) Kanpaleku turistikoetan kanpaleku unitatearenak ez diren osagaiak jarraian paratu edo kokatzeko baimena ematea.

o) Oro har, turismoari buruzko arautegian ezarritako baldintza, betebeharrak eta debekuak ez betetzea, baldin eta larriak edo oso larriak ez badira.

54. artikulua. Arau-hauste larriak.

1. Hona hemen arau-hauste larriak:

a) Legez gaiturik ez dagoen norbaitek zerbitzu edo jarduera turistikoak egin edo ematea.

b) Jarduera turistiko bat sailkatu edo bertan jardun ahal izateko inskripzio, titulu, lizentzia, jakinarazpen edo nahitaezko gaikuntzarako betebeharrak edo baldintzak ez betetzea edo aldatzea.

c) Saikapenaren arabera dagozkion izen, erro-tulu edo bereizgarrien ordez beste batzuk erabiltzea.

d) Kontratuaren xede den zerbitzuren bat ez ematea edo itundutako kalitate, kantitate edo izaerako baldintzak ez betetzea.

e) Bezeroei askatasunez sartzan ez uztea edo haiek kanporatzea, justifikazioarik gabe.

f) Zerbitzuak publizatean agertzen direnak baino prezio garestiagoetan ematea edo prezioei buruz indarra duten xedapenak bete gabe.

g) Turismo ikuskapenari edo administrazioko beste organo eskudun batzuei uko egin edo eragozpenak jartzea.

h) Jarduera turistikoaren subjektuek eskaintzen dituzten zerbitzuen funtsezko osagaiei buruz engainua edo nahasmena sortzen ahal duen publizitatea.

i) Zerbitzua postu erreserbaren arabera ez ematea, dauden postuak baino gehiago kontrata-tzeagatik.

j) Azpiegitura edo funtzionamenduko akatsak zuzentzeko turismo administrazioak emaniko epeak ez betetzea, horretarako justifikazioarik gabe.

k) Turismoari buruzko arautegiak eskatzen dituen aseguruaren eta fidantzen bermeen zenbatekoa gaurkoturik ez edukitzea.

l) Kanpaleku turistikoetan kanpinlari egoiliarak onartzea eta debeku diren kanpaleku-unitateak paratzea.

Kanpinlari egoiliarak dira kanpaleku turistikoan ohiko bizilekua dutenak.

m) Zerbitzu turistikoak emateko legez gaitu gabeko bulego, lokal, ibilgailu edo pertsonak erabiltzea edo gaiturik egonda ere jadanik erabiltzeko moduan ez daudenak erabiltzea.

n) Zuzenak ez diren argibideak ematea edo agiri faltsuak aurkeztea.

ñ) Arau-hauste arinetan berrerortzea.

2. Artikulu honi dagokionez, "berrerortzea" da urtebetean izaera bereko arau-haustea bitan baino gehiagotan egitea, bide administratiboan ebazpen irmoaren bidez halaxe adierazi denean.

55. artikulua. Arau-hauste oso larriak.

1. Hona hemen arau-hauste oso larriak:

a) Turismoari buruzko arautegia haustea, Nafarroaren interes turistikoari, kasuan kasuko lan-

bide edo jarduera turistikoaren prestigioari edo orokorrean bezeroei kalte larria egiten badie.

b) Erabiltzaileak bereizkeriaz tratatzea, baldin eta arraza, sorterri, sexu, erlijio, iritzi edo norberaren edo giza-taldearen beste edozein inguruabarrerengatik egiten bada.

c) Turismo establezimendu bat ireki edo jarduera turistikoan aritzeko titulu, lizentzia edo nahitaezko gaikuntza inskribatu edo emateko funtsezko kontuak doluz aldatzea.

d) Arau-hauste larrietan berrerortzea.

2. Artikulu honi dagokionez, "berrerortzea" da urtebetean izaera bereko arau-hauste bi edo gehiago egitea, bide administratiboan ebazpen irmoaren bidez halaxe adierazi denean.

56. artikulua. Subjektu erantzuleak.

1. Turismoaren alorreko arau-hausteen subjektu erantzuleak dira enpresa, establezimendu edo jarduera turistikoaren titularrak diren pertsona fisiko eta juridikoak. Titulartzat joko dira, bestela frogatu ezik, nahitaezko lizentzia edo erregistro administratiboa bere izenean daukatenak. Arau-haustea lanbide edo jarduera bat gaikuntza administratiborik gabe egitea baldin bada, erantzulea jarduera egiten duen pertsona fisiko edo juridikoa izanen da edo emaniko zerbitzuaren faktura egiten duena.

2. Enpresa, establezimendu edo jarduera turistikoaren titularrak, enpresa, establezimendu edo jarduerari loturiko edozeinek eginiko arau-hausteen erantzule izanen dira; hala ere, horrek ez du ezertan eragotziko zuzenbideko akzioak erabili ahal izatea arau-hausleei kasuko kalte-ordainak eskatzeko.

2. ATALA Zehapenak

57. artikulua. Zehapen motak.

1. Foru lege honetan eta turismoaren alorreko beste xedapenetan ezarritakoaren kontrako arau-hauste administratiboek zehapen haiek sortuko dituzte.

a) Ohartaraztea.

b) Isuna.

c) Jarduera turistikoak etetea edo establezimendua ixtea.

d) Titulua kentzea edo establezimendua ixtea.

2. Indarra duen arautegiaren arabera bere jardueretan aritzeko nahitaezko gaikuntza ez edukitzeagatik establezimenduak edo instalazioak

ixtea, batetik, edo gaikuntza hori lortu arte kasu bada eta horretarako eskaera tramitazioan dagoenean erabaki daitekeen funtzionamendu-etetea, bestetik, ez dira zehapentzat hartuko. Turismoaren alorrean eskudun den departamentuko titularrak erabakiko du ixtea edo etetea, interesatuari entzun ondoren. Neurri hori hartuko da zehapen espedientea irekitzeko aukera deusetan galarazi gabe.

3. Arau-hauste oso larriengatik ezarritako zehapenak hiru urtera preskribituko dira, arau-hauste larriengatik ezarritakoak bi urtera eta arau-hauste arinengatik ezarritakoak urtebetera.

Zehapenak preskribitzeko epea zehapena ezartzen duen ebazpena irimo bihurtu eta bihar munetik hasiko da.

Preskripzioa etenen da betearazpen prozedura hastean, interesatuari jakinarazita.

58. artikulua. Zehapen administratiboak.

1. Arau hauste arinak zehatzen ahalko dira:

- a) Ohartaraztearekin.
- b) 1.200 euro arteko isunarekin.

2. Arau hauste larriak 6.000 euro arteko isunarekin zehatzen ahalko dira.

3. Arau-hauste oso larriak 60.000 euro arteko isunarekin zehatzen ahalko dira.

4. Zehapen osagarri edo nagusi gisa, jarduera eteten ahalko da edo establezimendua edo instalazioa ixten, gehienez ere sei hilabetez, arau-hauste larrietan, eta gehienez ere urtebetez, arau-hauste oso larrietan.

5. Arau-hauste oso larrietan berreroriz gero, zehapen osagarri edo nagusi gisa, titulua kentzen ahalko da eta establezimendua behin betikoz ixten.

6. Jarduerak eten edo establezimendua ixteko erabakia kasuan kasuko udalari jakinaraziko zaio.

7. Arau-hauste oso larrietan, zehapen osagarri gisa, zehapenaren xede den jardueran aritzeko arau-hausleak Nafarroako Foru Komunitateari eskatu eta harengandik lorturiko edozein dirulaguntza edo laguntza finantzario eten edo kendu ahalko da.

59. artikulua. Zehapenen mailaketa.

Zehapenak proportzionaltasun printzipioaren arabera ezarriko dira, kontuan hartuz arau-haustea egitean gertatu diren gorabeherak; hauek bereziki:

a) Arau-hausteak nahita egin diren edo errepi-katu egin diren.

b) Ukituriko pertsonen eginiko kaltea.

c) Kalteturiko pertsonak zenbat diren.

d) Modu ez-zilegian lortutako etekinaren zenbatekoa.

e) Enpresaren ahalmen ekonomikoa.

f) Nafarroaren irudi turistikoarendako eta sektore turistikoarendako ondorio kaltegarriak.

g) Berrerortzea.

h) Prozedura irekitzea eragin zuten akatsak espedientea izapidatzen ari deino zuzentzea.

60. artikulua. Hertsatzeko isunak.

Aurreko artikuluetan aurreikusitako zehapenak galarazi gabe, turismoaren alorrean eskudun den departamentuak, ekintza arau-hauslea eten edo bukatzeko edo hala bada ez-egitea zuzentzeko errekerimenduan ezarritako epeak bukatu ondoren, Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 99. artikuluan xedaturikoaren arabera, hertsatzeko isunak ezartzen ahalko ditu. Haietariko bakoitzaren zenbatekoak arau-hausterako ezarritako isunaren ehuneko hamar eginen du gehienez.

61. artikulua. Organo eskudunak.

Foru lege honetan aipatzen diren zehapenak ezartzeko organo eskudunak hauexek dira:

a) Alor horretan eskudun den departamentua, eskumena Nafarroako Gobernuari ez badagokio.

b) Arau-hauste oso larrietarako, Nafarroako Gobernua, establezimendua behin betikoz itxi behar baldin bada.

3. ATALA Zehapen prozedura

62. artikulua. Printzipioak.

Turismoaren alorrean zehapenak ezartzeko ahalmena Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko IX. tituluko printzipioekin bat etorritik erabiliko da.

63. artikulua. Hasiera.

1. Turismoaren alorrean zehapenak ezartzeko prozedura ofizioz hasiko da organo eskudunak erabakita, jarduketa hauetariko edozeinen ondorioz:

a) Turismo Ikuskapenak eginiko aktaren ondorioz.

b) Ustezko arau-hauste baten berri izan duen agintaritza edo administrazio organoak jakinarazita.

c) Establezimendu turistikoetako erreklamazio orrietan jasotako kexa edo salaketaren ondorioz.

d) Indarra duen arautegian ezarririkoaren arabera aurkezturiko erreklamazio edo salaketaren ondorioz.

e) Nafarroako Foru Komunitateko administrazioan turismoaren alorrean eskudun den organoak hala erabakita, edozein baliabideren bidez ustezko arau-hauste baten berri duenean.

2. Prozedurari ekin baino lehen, egintzak argitzeako, alde zuretik informazioa biltzea agindu ahalko da. Horren arabera, gertaerak aztertu ondoren, erabakiko da inolako arau-hausteren zantzurik badenentz, eta, behar denean, zehapen prozedurari ekinen zaio.

64. artikulua. Zuhurtasunezko neurriak.

1. Salbuespen gisa, baldin eta segurtasuna eta zerbitzu turistikoaren erabiltzailearen interes ekonomikoak arrisku larri badaude, edo Nafarroako irudi turistikoa arrisku larri eta agerikoan badago, erabakitzen ahalko da, zuhurtasunez, establezimendua berehala ixtea edo instalazioak zigilatzea, edo jarduera etetea, akatsak zuzentzeko behar deneino, eta gehienez ere espedientea ebatzi arte.

2. Espedientea irekitzeko agintaritza eskudunak izanen du eskumena zuhurtasunezko neurria hartzeko, arrazoiak emanda, interesatuari entzun ondoren.

65. artikulua. Adiskidetzea eta zuzentzea.

1. Zehapen prozedura izapidatu aitzin edo horrekin batera ustezko arau-hausteari aukera emanen zaio eginiko kaltea ordaintzeko edo eginiko akats administratiboak zuzentzeko.

2. Borondatezko adiskidetzea, zerbitzu turistikoak ematen dituzten enpresek kontsumitzaile eta erabiltzaileei eginiko kaltea ordaintzeko, interes partikular bat nagusi deneko erreklamazioetan egiten ahalko da bakarrik, interes hori zenbatzen ahal denean.

Bi aldeak kontsumoaren arbitraje sistemaren esanetara jartzeak borondatezko adiskidetzearen ondorio berak izanen ditu.

3. Akats administratiboak zuzentzen ahalko dira bakarrik arau-haustearen eta haren ondorioz-

ko kaltearen zenbatekoak horretarako bidea ematen duenean.

4. Adiskidetzeak eta zuzentzeak berekin ekarriko dute jarduketak artxibatzea edo haien sailkapenaren larritasuna arintzea.

5. Adiskidetu eta zuzentzeko prozeduren izapidaketak arau-haustearen preskripzioa eta zehapen prozedurak ebazteko epearen zenbaketa etenen dituzte.

66. artikulua. Arau-hauste administratiboak eta jurisdikzio penala.

1. Administrazioaren ustez arau-haustea arlo penalekoak izan daitezkeenean, organo administratiboak halaxe jakinaraziko dio ministerio fiskalari eta ez du zehapen prozedurarekin segituko, epaileek, kasua bada, bere ebazpena eman arte.

2. Halaber, organo administratiboak prozedura eten eginen du zehapen prozedura administratiboaren xede diren egintzetarako prozedura penal abian dela jakin badeza.

3. Zehapen penala ezarri gero, zehapen administratiborik ez da ezarriko. Ez bada jotzen delitirik edo faltarik izan denik, administrazioak zehapen prozedurarekin segitzen ahalko du, jurisdikzio eskudunak frogatuz jotzen dituen gertaerak oinarri hartuta, kasua bada.

67. artikulua. Iraungitzea.

1. Zehapen prozedurak iraungituz joko dira, eta jarduerak artxibatuko dira, prozedurak hasteko erabakia hartzen denetik sei hilabete igaro ondoren haien ebazpena eman eta jakinarazi ez denean.

2. Aurreko idatz-zatian ezarririko epea kontatzean honako hauek kenduko dira: interesatuari egotz dakizkiokeen geldiarazpenak, Herri administrazioaren araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 42. artikuluko 5. idatz-zatian aipaturiko etendurak eta foru lege honetako 65. artikuluan aurreikusiriko kasua. Gainera, legez ezarririkoaren arabera erabakitzen diren ebazpena emateko epeen luzapenak ere kontuan hartuko dira.

3. Espedientea artxibatuz gero, halaxe jakinaraziko zaio inputatuari.

68. artikulua. Exekutibotasuna eta helegiteak.

1. Foru lege honetan xedaturikoaren arabera zehapenak ezartzen dituzten ebazpen administratiboak exekutiboak izanen dira bide administratiboa amaitzen dutenean.

2. Zehapen prozedurako ebazpenen aurka, interesatuek bidezko diren helegiteak aurkezten ahalko dituzte, Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuaren eta administrazioaren araubide juridikoari buruzko apirilaren 11ko 23/1983 Foru Legean, Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedaturikoarekin bat.

69. artikulua. Zehapenen erregistroa.

1. Turismoaren alorrean eskudun den departamentuan zehapen erregistro bat izanen da. Bertan foru lege hau urratzeagatik ezarritako zehapen irmoak idatziko dira.

2. Ohar horiek zehapenak preskribitzeko epea igaro ondoren ezabatuko dira.

Xedapen gehigarri bakarra. Udalerrri turistikoak eta turismorako gunek interesgarriak.

1. Udalerrri turistikotzat eta turismorako gunek interesgarritzat joko dira urte anitzeko ekintza planak hala izendatzen dituenak.

2. Aldez aurretik, erregelamendu bidez ezarriko dira izendapen hori jaso ahal izateko turismo udalerrri turistikoek bete beharko dituzten baldintzak.

3. Udalerrri bat udalerrri turistikoen katalogoan azaltzeak ekarriko du bertako bisitari-multzoaren zati bat aintzat hartzea, dagokion dirulaguntzaren ehunekoa zehazte aldera eta inbertsioak finantzatzeko planetan inbertsioaren errentagarritasun koefizientea zehazte aldera.

Xedapen iragankor bakarra. Izapidatzen ari diren zehapen prozedurak.

Foru lege honek indarra hartzean hasita dauden zehapen prozedurak, hasi ziren momentuan indarra zuten xedapenen arabera izapidatu eta ebatziko dira.

Lehen xedapen indargabetzailea.

Foru lege honetan xedaturikoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak indarrrik gabe gelditzen dira, bereziki Diziiplina turistikoari buruzko azaroaren 17ko 14/1997 Foru Legea.

Bigarren xedapen indargabetzailea.

Foru lege honek indarra hartzean, Nafarroako Foru Komunitatean ez da aplikatuko 1972ko abuztuaren 11ko Ministerioaren Agindua, zeinaren bidez onetsi baitzen enpresa turistikoetako establezimenduen zuzendarien estatutua.

Azken xedapenetan lehena. Zenbatekoak gaurkotzea.

Foru lege honetan aurreikusiriko zehapenen zenbatekoak Nafarroako Foru Komunitateko aurrekontuei buruzko legeetan berrikusi eta gaurkotu ahalko dira.

Azken xedapenetan bigarrena. Erregelamendu bidezko garapena baimentzea.

Esku ematen zaie Nafarroako Gobernuari eta turismoaren alorrean eskudun den kontseilariari foru lege hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapenak emateko.

Azken xedapenetan hirugarrena. Indarrean sartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urte bat 40,27 euro	
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 1,02 »	
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 1,20 »	